

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko azaroaren 14a / 650. zenbakia



AED ELKARTEAK 20 URTE BETE DITU

ORAIN ETA HEMEN: HERRI ANITZA/8 • ZAHARRAK: ITURBIDE EGOITZAREN GAINKO IKERKETA/17

AZALA: ALEX AZKARATE

GREMIOEN GIDA/23

laster

Debagoiena *esku-eskura*

Goiena.net

Debagoieneko Interneteko ataria

zure herriko albisteak sarean • eztabaidak • agenda • ...



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 - Faxa: 943 78 15 51

Zure etxeak behar duena

Eraikuntza materiala

Iturgintza

Berogintza

KALEINKESTA/ Donostian geruau eta jente gehixau dabil bizikletan; eta Mondraguen?



JOXE DEL VAL
Langillie



ESTHER GOIKOLEA
Etxekoandrie




LOURDES BERGARA
Langillie



LOREA URIARTE
Langillie



IBAN ZUBIZARRETA
Langabie



JOSEBA IMANOL TALLEDO
Langillie

Bizikletan ibiltzeko Mondraguen lan batzuk egin biherko litzakez, baiñe ondo egongo litzake. Zenbat automobil dauzen ikusitxe beste politika bat egin biher da: transporte publikue...

Nik pentsetan dot Mondraguen bidegorrixek ipiñi ezkerre jentie bizikletan ibilttera ohittuko litzakela; denporiekin bai. Beste leku batzuetan ibiltten badie, hamen zergaittik ez?


Ez dakit bizikletan ibilttera ohittuko gizen, baiñe bidegorrixek ipiñi ezkerre lehenago ohittuko gitzake. Bidegorririk ez badau, seguru sekula be ez garela ohittuko.

Nik pentsetan dot Mondraguen bidegorrixek egingo balittue oso inbertsiño ona egingo leukiela. Seguru jentie bizikletan gehixago ibiliko litzakela, baiñe lanak egin biher die horretarako.

Holandan, adibidez, jentie bizikletan ibiltten da, eta neure ustez oso idea ona da hori. Segurue dana da bizikletendako biderik ez bada egitten jentiek ez dauela bizikletarik hartuko.

Gaur egun oiñez be ezin geike ibili, eta bizikletendako bidiek egittie irtenbide ona izen leike. Edozertarako hartzen dogu automobile, eta beste bide batzuk topau biher dittugu.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK KONTSUMOAREN GAINEKO ARGIBIDEAK Astelehenean, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko kontsumo-busa izan zen Arrasaten. Ekimen horren helburua zen kontsumoaren gaineko argibideak ematea. Herritarren kontsultak argitu zituzten, eta eskoletako gaztetxoei berbaldiak egin zizkieten. Herritar batzuek ekimena txalotu gura izan dute.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /9

KIROLA /11

KULTURA /14

Jaiotzaren aldeko ekimena

Gabonei begira, Arrasateko Belenzaleen Elkarteak sortu dute, jaiotza ipintzeko.

Ointzek burua altxatu du

Ointxe Arrasate saskibaloia taldeak jipoi galanta eman zion zapatuan CN Pamplona talde nafarrari (95-59).

Ikuskizun erraldoia

Hainbat talde dantza, musika eta antzerkia uztartuko dituen ikuskizuna prestatzen dabilta.

ASTEKODATUA

2.204

LAGUNEK IKUSI DUTE 'LA PELOTA VASCA'

Azaroaren 6tik 10era bitartean, lau egunean, *La pelota vasca* filma eman zuten Amaia Udal Antzokian. Lagun gehien domekan joan ziren: 684, hain zuzen ere. Oso harrera ona izan du.

BESTE EKESANA

Arrasateko Union Cerrajeraren presentzia erabat desagertu zen urrian, Torlojutegi zaharra itxi zutenean. Nahiz eta lantokiaren momentu onenetan ehun langile baino gehiago aritu, egun dozena bat besterik ez ziren geratzen. 60ko hamarkadatik lanpostuak gutxitzen joan dira, trenbidearen gainbeheraren ondorioz. Zaldispeko esparruko UCEM 1906an sortu zen, eta ia mende osoa egin du. Hala ere, Torlojutegiak 1912an ireki zituen ateak. Trenbide eta errailentzako gabillak eta torlojuak ekoizten zituzten. 1926an hartu zuen orain arte izan duen eraikina. Cerrajerako gerente Toribio Agirrerren aginduz egin zen. Nahiz eta tokia betiko itxi duten, oraindik barruan daude lanbiderako beharrezko ziren labeak...

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL
'EUSKONEWS'/03-11-07

HERRITARREN BERBAK/ Aitor Zabalo



Legea gizakiarentzat

Persona ezagun batek duela urte morderka bat honako hau esan zuen: *Legea gizakiarentzat eta ez gizakia legearentzat*. Nik aspaldi entzun nuen esaldi hau, baina azken urteotan berriro ere gogora etorri zait kontatuko dizuedan istorioarekin bat.

"Bazen kostaldeko inguru bat non itsasontzi asko urperatzen ziren. Lagun talde bat elkartu zen inguru horretan laguntza behar zuten itsasontziei laguntza emateko. Etxe bat egitea lortu zuten, eta laguntza ontziarentzat kaitxi bat egitea ere lortu zuten. Inguruako marinelek asko estimatzen zuten gazte talde horrek egiten zuen lana. Marinela asko salbatu zituzten.

Etxe horren izena oso ezaguna egin zen, eta bazkide kopurua asko gehitu zen. Bazkide gehiago izateak etxe handiagoa eskatzen zuen eta horrela egin zuten. Zuten kaitxiak ere handitu zuten, bazkideen itsasontzi ederren-

tzako. Azkenean larrialdian zeuden marinelei laguntza ematea ahaztu egin zitzaizen".

Nolabait ditugun lege eta arauekin berdina ez ote den gertatzen susmoa dut. Gizakia legearentzat egina egon behar duela, alegia. Legeak eta arauak zertarako diren ahaztu egin dugu, eta gizakia legearen menpe dago. Gizakia esaten badut, bai gizaki indibiduala eta bai gizaki multzoa ere esan nahi dut.

Gure kontuak jarraipenik ere badu: "Etxe horretako talde batek, marinelen kexuak entzunik, kilometro batzuk urrunago beste laguntza etxe bat egitea pentsatu zuten..."

Egia esan, ez dakit ipuinak noizbait amaierarik duen ala ez. Baina, kasu honetan ez dut uste lege paraleloak sortzea irtenbidea denik. Gizakia ez da legearen menpe egon behar. Lege eta arauak gizakiaren bizitza hobetzeko balio behar dute. Bestela, ez dituzte euren helburuak betetzen.

"Lege eta arauak gizakiaren bizitza hobetzeko balio behar dute. Bestela ez dituzte beren helburuak betetzen"

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantza Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñarain
Ane Bereizbar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



Goiena
Komunikazio Zestitzunak

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 14**
Azkoaga. Iturriotz 943 79 79 99
- ZAPATUA, 15**
Corcuera. M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- DOMEKA, 16**
Irizar. Erguin 11. 943 79 12 39
- ASTELEHENA, 17**
Amezua. Santa Marina 32. ... 943 79 09 74
- MARTITZENA, 18**
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 19**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- EGUENA, 20**
Español. Araba etorb. 17 943 79 18 65
- EGUBAKOITZA, 21**
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIEIXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Igualaratona. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelohenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa
- Arrasate**
Astelohenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko; medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZAK**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
..... 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza . . . 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monteiron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

GESALIBARKO ERRETIRATUAK
Etzi, domeka, Gesalibarko erretiratuei omenaldia egingo diete. 12:00etan meza entzungo dute auzoko elizan. Eta 14:00etan bazkaria egingo dute auzo elkarteak. 40 bat lagun elkartzeko dira.

BAKARRIZKETA JAI ZALEN
Gaur, egubakoitza, Esther Uriak *Ura dakarrena, glu-glu-glu...* bakarrizketa egingo du, 23:00etan.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Eguenean, azaroaren 20an, *Bowling for columbine* filma emango dute Amaia Udala Antzokian, 21:30ean.

DEBAGOIENETAKO MUSIKARIAK
Gaur, egubakoitza, Debagoieneko musika eskolek kontzertua egingo dute Amaia Udala Antzokian. 19:00etan izango da.

TRATU TXARREN AURKA
Eguaztenean, azaroaren 19an, Maria Angeles Alvarezek *Emakumeen aurkako erasoen aurrean, zer? berbaldia* egingo du. 19:00etan izango da, Emakume Txokoa.

ADOS TALDEAREN ANTZEZLANA
Etzi, domeka, Ados taldeak *Las mujeres de verdad tienen curvas* antzezlana egingo du Amaia Udala Antzokian, 19:30ean.

AEDrenAGENDA

SEASKAKO EGUTEGIAK
2004ko Seaskako egutegiak salgai daude AEDko bulegoan. Hiru eurotan saltzen dituzte.

'BERRIA'-REN AKZIOAK
Berria egunkariaren aldeko akzioak salgai dituzte AEDko bulegoan. Horrez gain, Egunkaria Aurrera! plataforman lanean dabil. Jo AEDra eurekin bat egitera!

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Correosek ez zuen posta baserrietara eramán gura

Bedoñako, Udalako eta Uribarriko baserriarrek arazoak zituzten posta jasotzeko. Gehienek posta-kutxatilik zituzten eta eurek jaitsi behar izaten zuten herrira. Auzo-alkateek sarritan azaldu zioten kexua Correosi, baina hark postontzi-etxolak ipintzeko erantzun zien.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Arpausuak”



Erreka oinez zeharkatzeko jarritako harriak.


GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Letonaren egoeraz elkarrizketak

Enrike Letona presoaren egoeraz galdetu diogu aste honetan Iñigo Urkulluri, Legebiltzarreko Giza Eskubideen batzordeko presidenteari. Arrasatearrari gertatutakoaren berri baduelata eta iritzia eskatu diogu, eta zapatu eta domekan berriro eskainiko ditugu haren hitzak. Agustín Letona anaiarekin izandako solasaldia ere errepikatuko dugu. Horrez gain, Oskar Markidak egin dituen bidaien berri izango duzue, baita sagardoaren gaineko xehetasunak ere.



Asteburuko plana Jokinekin

Hemendik aurrera *Planning Prest* saioa eskainiko dizuegu egubakoitzero, 19:00etan. Jokin Etxeberría arrasatearrak gidatuko du, eta aste bukaerari begira antolatu diren ekintzen berri emango digu. Gaurtik aurrera izango da herriko irrati-uhinetan *Planning Prest*.
Eta astelehenean, 09:30ean, AEDko presidente Joseba Ezpeleta elkarrizketatuko dugu; elkarteak 20. urteurrena ospatzeko antolatu dituen ekintzen berri emango digu.

HAUGIROA!

MINIMOA **3 °C**
Eguaztena, 5

MAXIMOA **24 °C**
Eguena, 6

ASTEKO EURIA (l/m²) **13,9 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 5	21 °C	3 °C	1,5 l/m ²
Eguena, 6	24 °C	7 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 7	23 °C	6 °C	- l/m ²
Zapatua, 8	21 °C	7 °C	7,9 l/m ²
Domeka, 9	19 °C	9 °C	0,4 l/m ²
Astelehena, 10	20 °C	7 °C	- l/m ²
Martitzena, 11	21 °C	6 °C	4,1 l/m ²

Bergarako San Juan auzoari jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- EGUBAKOITZA**
19:10 *Planning Prest*.
- ZAPATUA**
10:00 *Asteko albisteak*.
10:15 *Asteko elkarrizketak*: Iñigo Urkulluri eta Agustín Letona, Enrike Letonaren egoeraz, Oscar Markaideren bidaiak; Iñaki Urreta Alvaro Uribere inguruan; Luxio Ugarte Prestigen hondamendiaz...
- DOMEKA**
10:00 *Asteko albisteak*.
10:15 *Asteko elkarrizketak*
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 *Albistegia*: Albisteak eta elkarrizketak.
10:00 *Euskadi Irratiko albistegia*.
10:06 *Igo Autobusera* magazina: efemerideak, elkarrizketak, kirolak, abokatua, ...
11:00 *Euskadi Irratiko albistegia*.
11:06 *Igo autobusera* magazina: sukaldaria, literatura, musika, kontu-kontari, hileko galdera...
11:30 *Arrasate Irratiko albistegia*.
11:40 *Igo autobusera* magazina: sarreraren zozketak, zorian agurrak...
12:00 *Euskadi Irratiko albistegia*
12:06 *Izarren ordua*: abesti ezagunekin osatutako musika tartea.
13:00 *Euskadi Irratiko albistegia*.
14:00 *Goizeko saioaren errepikapena*.
17:00 *Izarren ordua*.
19:00-21:00-23:00 *Albistegi laburra*.

ASTEABIHITZETAN

ESK sindikatuaren ikastaroa

ESK sindikatuko hamasei emakumek jendaurrean berba nola egin behar duten ikasi duten egunotan. Egubakoitz goizean izan zuten, hain zuzen, ikastaro horretako azken saioa Arrasateko Emakume Txokoa.

Ikus-eremua finkatzea, entzulearen arreta piztea eta erakartzea, mezu egokia zabaltzea... Horiek eta beste hamaika aholku eman dizkie egun hauetan Elena Etxebarriak bere ikasleei. Ikastaro horrekin, sindikatuaren helburua izan da elkarteko emakumeei komunikatzeko tresnak eskaintzea.

Mesedeetako fundatzailea beatifikatua

Joan den domekan Mesedeetako fundatzaile Juan Nepomuceno Zegri y Moreno beatifikatu zuten Erroman. Mesedeetakoek ordezkari zabalak izan dute ibarrean, baita Arrasaten ere. Juan Nepomucenok bere garaiko gizartearen arazoak ikusita sortu zuen Mesedeetako kongregazioa, 1876ko martxoan. Ordutik hona mundu osora zabaldu da kongregazio hori. Arrasaten, Mesedeetako Ama eskola, zahar etxea eta Santa Agedako ospitalea sortu zituzten.

Umezaintzako gaztetxoak Gatzagan

Arrasateko umezaintzako umeak Gatzagako Gatz Museoa izan ziren egun goizean. Gaztetxo mondragoetarrek gatz nola egiten duten ikusi ahal izan zuten, baita probatu ere.

Ia egunero joaten da talderen bat Gatzagako Gatz Museoa bisitatzen. Gehienetan eskola taldeak izaten dira, baina ez ibarrekoak bakarrik, Euskal Herri osoko ikasleak izaten dituzte. Arrasateko 5 urteko ikasleak dortokari buruzko programa dabil-tza egiten. Dortoka itsasoan bizi da, eta itsasoa gazia denez, gatz nandik datorren ikustera joan ziren joan den egunean Gatzagako Gatz Museora. Baita azkar ikasi ere!



Umeendako jaia Uarkapen

Arcoiris taldearen eskutik, umeendako jaia izan zen domeka arratsaldean Uarkape pilotalekuan. Ume eta guraso asko elkartu ziren pilotalekuan, eta guztiek ere ikuskizun paregabeaz gozatu ahal izan zuten. Ikuskizunetaz gain, gaztetxoek jolasetan parte hartzeko aukera izan zuten.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Zorionak, AED!!

AEDk hogeitun urte bete ditu. Urte asko dira, ez dago zalantzarik. Eta urte hauetan guztietan egin dutena ez da txantxetan hartzekoa. Gauza batzuetan huts egingo zuten, jakina, baina beste askotan asmatu egin dute. Elkarrekin ibilbide luzea egin du eta, tartean, hainbat elkarte, erakunde eta egitasmo sortu dituzte. Oinordetza handia utzi dute,

horren adibide mordo daude.

Gogoan daukat orain dela urte batzuetako bitxikeria bat. Herriar batzuek, erdi txantxetan erdi zirikatzearen, AEDko talde bati *La secta pandereta* deitura ipini ziotena. Izena krudela bezain orijinala zen.

Bestalde, eta haria berreskuratuz, AEDk lan oso handia egin du, Euskal

Herriko hainbat egitasmo-erendako eredu bilakatu da, eta gauza asko, ugari, egin ditu. Horra hor, gure gertuko adibide bat ipintzearen, ARKO sortu izana. AEDk ipini zuen martxan ARRASATE PRESS eta gero ATB.

AEDk ekimen hori, beste batzuk bezala, bultzatu ez balu, egun, ziurrenik, ez litzateke Goiena Komunikazio enpresa egongo. Azken finean, ekimen hori Arrasaten sortutako haziaren ondorioa da-eta.

ASTEKOIRUDIA



GORKA MORRAS

DAGOENKO HASI DIRA KALEETAN GABONETAKO ARGIAK IPINTZEN

Gabonak datozela adierazten digun iragarleetako batek, telebistak, balio hori galdu du, orain dela bi hilabete hasi ziren-eta gabonetako iragarkiak emititzen. Eguraldia ere dagoeneko ez da iragarle fidagarria, aztoratu samar dabil-eta. Kaleetan ipintzen dituzten Gabonetako argiek, berriz, argi erakusten

dute Gabonak gain-gainean ditugula, eta Mondragoen dagoeneko hasi dira argiak ipintzen. Batzuetako egun pozgarriak, beste batzuetako tristeak. Gabonak dirua barra-barra gastatzeko aprobetxatuko duenik ere bada, baita kasu handirik egin gabe igaroko dituenak ere. Esandakoa, gain-gainean ditugula./X.U.

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

KULTURA/ Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak 20 urte bete ditu

AED: edonon, edonorekin eta edonoiz euskaraz egin ahal izateko, lanean 20 urtez

UBANE MADERA / IKER BARANDIARAN

80ko hamarkadan euskararen aldeko pauso garrantzitsua eman zuten Arrasaten: Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak sortu zuten. Euskararen egoeraz kezkatuta eta euskararen normalizazioa helburutzat hartuta, 20 urte bete ditu aurten elkarte horrek.

Euskararen egoera asko hobetu da azken 20 urteotan. Nahiz eta, oraindik ere, egiteko asko izan. Urte horietan guztietan lanean jardun du AED elkarteak. Eta, duda barik, hari zor diogu euskararen egoera hobetu izanaren zati handi bat. Eta 20 urte bete ostean, aurrera egiteko asmo sendoa dauka AEDk euskararen normalizazioaren bidean.

HISTORIA APURRA

Hain zuzen ere, helburu horrekin sortu zuten AED elkarteak 1983an: euskara gizarte harreman guztietarako tresna nagusi izatea lortzen ahalegintzeko, euskararen normalizazioa lortzen ahalegintzeko. Euskara kalera ateratzeko, alegia.

Soziolinguistikako hitzaldi batzuen inguruan batutako jendea hasi zen lehen urratsak ematen, 83ko urtarrilean. Hitzaldi haietan euskararen egoera ikuspegi globaletik aztertu zuten eta han elkartutakoen artean honako diagnosis onartu zuten: euskararen normalizazio bidean hainbat aurrerakada irakaskuntzan, komunikabideetan... onartu arren, euskararen benetako presentzia eta erabilera oso murriztak izanik herrian, zerbait gehiago egin behar zela. 83ko azaroan egin zuten batzar eratzailea eta handik aurrera hasi zen AEDren ibilaldi gera ezina.

"Euskaraz bizi izateko ekimenak bultzatuaz bat, Arrasateko euskaldunak biltzea izan zen hasierako ardura nagusia. Bazkideak eginez eta euskaraz bizi izateko guneak irabaziz, elkarteak handituz joan da etengabe" Hala deskribatu izan du AED elkarteak bere burua. Betiere, argi utzita ez dutela elkarte erraldoi izan gura; baizik eta gizarteko ahalik eta arlo gehienetan eragina izan gura dute. Eta, duda barik, hori egitea lortu dute. Ondo, gainera. Izan ere, AEDren baitan sortu dira gaur egun ezagutzen ditugun elkarte asko: Txatxilipurdi, Ekin Emakumeak, ARKO eta Euskalan. Haien bitartez, euskararen erabilera zabaltzeko garrantzitsuenetara: gazteak, kultura, komunikabideak, lan esparrua eta emakumeak. Hori guztiori egiteko, besteak beste, 870 lagun dituzte bazkide moduan.

ARLOKA LANEAN: KULTURA

Hizkuntzak kulturarekin duen lotura estua kontuan hartuta,



AED elkarteak sortu zutenean aurkezpena egin zuten jendaurrean; argazkian daude hasiera gaitz hartan parte hartu zutenak.

kalitatezko kultura eskaintza iraunkorra ematea izan da AEDren helburuetako bat. Hori lortzeko makina bat ekimen antolatu izan dituzte azken urteotan; horietako batzuek indar eta izen handia lortu dute Arrasaten, baita Arrasatetik kanpo ere: literatura lehiaketak, Kultur Errota, sendabelarren taldea, hitzaldiak eta mahai-inguruak, bertso eskola, liburu eta disko azoka, antzerki eta komiki lantegiak, herrietako euskara elkarten gaineko jardunaldiak, Mugarriz Mugarri

Arrasate ezagutzen ekimena, eta beste asko.

GAZTETXOENEGIN LANEAN

Beste arlo baten, Txatxilipurdi elkarteak sortu zuten 1988-89 urteetan. Umeekin lan egiteko. Elkarte horren helburu nagusia 0-12 urte bitarteko umeen aisialdia euskararen erabilerarako gune ludiko, dinamiko eta atseginak sortzea zen. Proiektu orokor horren barruan, zerbitzu finkoak (ludotekak) eta zerbitzu puntualak (udalekuak, Txikilandia

Gabonetan...) sortu ditu AEDk. Urtean 2.000 umekin jolas egiteko aukera dute; jakina, dena euskara hutsean. Txatxilipurdi elkarteak 1994an bilakatu zen elkarte autonomo.

GAZTEKIN AHATZU BARIK

Gazte sailak ere eratu ditu AEDk. Gazteen auto-antolaketa lortu gura dute, taldean, elkartean eta herrian. Hala, Txatxilipurdi eta gazte txokoetan elkartzen dira eta gazteei zuzendutako ekintzak antolatzen dituzte, betiere, herri-

Euskara kalera ateratzeko helburuarekin sortu zen, normalizazioa lortzeko

Gizarteko arlo guztietara iristea lortu du: gazteak, lantegiak, kultura, umeak...

AEDren baitan sortu ziren gaur egun oso ezagunak diren elkarteak: Euskalan, Txatxilipurdi...

ko beste taldeekin lankidetzatzatuta: mendi irteerak, lasterketak, ikastaroak, Dragoi-jana...

EUSKARAREKIKO SENTSIBILIZAZIOA

Arlo horretan, eta euskararen erabilera esparru askotara bultzatzeko, herriko erakundeekin harremanetan dabil AED: irakaskuntzan eredu euskalduna bultzatzeko, erakunde publiko zein pribatuen barne eta kanpo harremanak euskalduntzeko, ahozko erabileran, inprimaki zein publizitatean, justizia administrazioan euskara bultzatzen, etxetan euskaraz jasotzen dugun publizitatea neurtzen...

EMAKUMEENDAKO EKIMENAK

Emakumeak ahaztu barik, bereziki haiei zuzendutako egitasmoak antolatzen ditu AEDk, 1985az geroztik. Ekin Emakumeak taldea sortu zuten horretarako. Ekintza horiek emakumeen gustukoak izan daitezten ahalegintzen dira, euren garapenerako lagungarriak izan daitezkeenak: hitzaldiak, ikastaroak, lantegiak... 1995etik aurrera autonomo egin zen Ekin Emakumeak.

KOMUNIKABIDEEN GARRANTZIA

Komunikabideen aroan bizi garela ikusita, AEDk ezinbestekoa ikusi zuen eguneroko informazioa euskaraz jasotzea. Hala, ARKO sortu zuen, herri komunikabideak batzen dituen elkarteak. Haren baitan jaiotzen ziren ARRASATE PRESS (1988) eta Arrasate Telebista (1990), ATB.

"AEDri esker beste talde asko sortu dira"

Zelakoak izan ziren AEDren hastapenak?

Sasoi hartan batzuek euskararen erabilera bultzatzearen gainean zuten jokaerarekin, horren alde egindako saiakera guztiek ez zuten emaitzarik lortu, ez zen posible horren aldeko biderik egitea, eta ekimen baten beharra zegoen. Horregatik, bide propioa egitea erabaki genuen eta AED sortu. Bat-batean, pieza guztiek bat egin zuten. Deialdia egin eta hiruzpalau hilabetera, 300 lagunek eman zuten izena, kuota ordaindu zuten, eta egun erdiko liberatua jartzea erabaki genuen. AEDren sorrerak oso harrera ona izan zuen. Ulgor eta Ularco enpresen garaian Euskalan lanean zebilen, eta AEK euskarazko gau-eskolak ematen zebilen.

Zelan ikusten duzu AEDk egin duen lana



JOXE MARI MUXIKA
AEDko presidentea

eta elkartearen egoera gaur egun?

Oso ondo ikusten dut. AEDk egindako lana oso positiboa (izan) da, ikaragarria. AEDk eta elkarteak berak egindako lanak Arrasaten, Debagoienan eta oro har Euskal Herrian oso eragin handia izan du.

Hala ere, gaur egungo AEDren egoera baloratzeko orduan, gauza asko hartu behar dira kontuan. Urte hauetan guztietan, AEDren filosofia izan da elkarte erraldoi bat ez eratzea. Horren ordez, esparru baten lan egin

eta arlo bakoitzean oinarri batzuk sendotu ostean, beste erakunde independente batzuk sortzeko erraztasunak ematea. Horrek AED itzalpean utzi du, baina haren lanari esker sortu dira euskararen erabileraren alde lan egiten duten beste hainbat eta hainbat elkarte: Txatxilipurdi, Ekin Emakumeak, Euskalan, ARKO eta beste asko.



1989ko Sanjuanetan euskal tonbola jarri zuten aurreneko aldiz. Literatura lehiaketetan jende askok parte hartu ohi du.

egun GOITB dena. 1991n egin zen ARKO autonomo eta harrezkero, besteak beste, Arrasate Irratia ere hartu du bere baitan.

LAN ESPARRUA

Eta gure herrian horren garrantzitsuak diren lantegiak ahaztu barik, EUSKALAN elkartearen sortu zuen AEDk lan esparruan euskara zabaltzeko, 1986an. Hona hemen zergatia: "Ikastetxeetan zein euskaltegietan ikasitakoa lanean erabili ezean, egindako ahaleginak ezerezean geratzeko arriskua dago. Horregatik, lantegiaren euskararen normalizazioa lortzen ahalegintzea ezinbestekoa da". 1996an bilakatu zen EUSKALAN elkarte autonomo.

ZAHAR-BERRI, HEGOHAXE, ESKOLAK...

Horrez guztiaz gain, bestelako proiektuak abiarazi izan ditu AEDk. Hortxe dago, esaterako, Zahar-Berri egitasmoa. Euskara ikasten dabilzanen eta euskaldun zaharren artean zubia eraiki du horren bitartez. Hala, batak ika-

sitakoa praktikatzeko aukera dauka, inolako lotsa eta beldur barik; eta besteak euskara erabiltzeko aukera. Udal Euskaltegiarekin eta Erdu-AEKrekin batera egiten du ekimena AEDk. Eta, orain artekoa ikusita, oso emaitza positiboak eskuratu dituzte, batez ere, euskaldun berriei begira.

Bestalde, Hegohaxe egitasmoaren bitartez, Arrasateko mugak gainditu eta Iparraldeko SEASKAko ikastolendako laguntza bideratzen ibilita dago AED elkartearen. Aisialdia eta eskola bateratzeko ahalegina ere egin du; izan ere, ikasleek hizkuntzaren

ezagutza eskolan jaso ostean, aisialdiaren bitartez gehitzen da hizkuntzaren erabilera eta hizkuntzarekiko motibazioa.

Eta, euskararen aldeko jardunean, herriko erakundeekin lankidetzan bultzatzeaz gain, ibarretako ekintzak antolatzen ere bada bil 1992az geroztik. Era berean, erakunde ofizialekin harreman iraunkorra du AEDk, egitasmoak abian ipini eta finantziazioan laguntza lortzeko. Adibidez, Arrasateko Udalarekin 1989az geroztik. Horrez gainera, AED euskararen normalizazioa lortzeko Plan Estrategikoaren barruan dago. Eta, oro har, urte osoa bete-beteta du. Horrez guztiaz gainera, urtero egiten diren euskararen aldeko ekintzetan ere hartzen dute parte: Herri Urratserako, Nafarroa Oinezarako... autobusak antolatu, Bai Euskarari, Korrika...

Gure aldetik, eginiko guztia-
rengatik eskerrak eman eta euskarak behar duen bitartean aurrera egin dezala eskatu gura diogu AEDri. *Ametsa eraikiz doa...*

*Urtea ekimenez bete-
beteta du AEDk;
elkartearen ekimenez
gain, sortzen diren
asko babesten ditu*

XX. URTEURRENEKO PROGRAMAZIOA

Gaur, egubakoitza, Esther Uriak antzerki-bakarrizketa ikuskizuna egingo du

Gaur, egubakoitza, Esther Uria aktoreak *Urak dakarrena...glu-glu-glu* antzezlan egingo du Jai Zale tabernan, 23:00etan. AEDk antolatu du, Kultur Errotaren bitartez. AEDk hainbat urte daramatza Kultur Errotarekin lankidetzan halako ekitaldiak herrian antolatzen.

Esther Uria aktoreak ibilbide luzea du -telebistan, zineman eta batez ere antzerkian egin du lan- eta aspaldi honetan bakarrizketa hori egiten dabil buru-belarri. Gai askoren gainean egiten du berba eta uneoro ikusleak inplikatzeko saiatzen da.

Aspaldi honetan euskalgintza jasaten ari den erasoen aurkako mahai-ingurua

AED oso arduratuta dago aspaldian euskalgintza jasaten ari den erasoekin: *Egunkaria* ixtea, Martin Ugalde Kultur Parkean egindako operazioa... Gai horren gainean mahai-ingurua egiteko ahalegina egin dute, eta punta-puntako gonbidatuak ekarriko dituzte. Eguenean egingo dute, azaroaren 20an, Udaletxeko osoko bilkura aretoan, eta gonbidatuak honako hauek izango dira: Martxelo Otamendi, *Berria*-ko zuzendaria; Xabier Mendiguren, Euskararen Kontseiluko idazkari nagusia; Joxe Mari Muxika, Topaguneko presidentea eta Xabier Huitzi, Diputazioko Euskararen Normalkuntzarako arduraduna. Xabier Letonak egingo ditu moderatzaile lanak. Mahai-ingurua 18:30ean izango da. Honako leloa izango du: *Azken erasoaldien aurrean, euskalgintza osoa babesteko neurri iraunkor eta eraginkorren bila.*

Etxeko eta kanpoko bertsoariekin bazkaria antolatu dute Uarkapeko tabernan

Ezagun da AEDk herrian bertsoarietza bultzatzeko egin duen ahalegina. Horra hor, esaterako, 9 eta 12 urte bitartekoei zuzendutako bertso-eskola. Horregatik, ospakizun hauetan bertso-jaialdia antolatu dute. Datorren zapatuan, azaroaren 22an, bertso bazkaria antolatu dute Uarkape pilotalekuko tabernan. 14:30ean egin dute hitzordua eta txartelak dagoeneko salgai daude AEDn eta Hire liburu-dendan. 15 euro balio dute. Bazkideek, oster, 12 euro ordaindu beharko dituzte.

Besteak beste, Xabier Amuriza eta Jon Maia bertsoarietza hartuko dute parte. Horiez gain, AEDko bertso eskolako beste batzuk ere kantuan ibiliko dira: Jokin Labaien arrasatearra, Enaitz Alustiza bergararra eta Manex Agirre aramaiarra, hain zuzen ere. Eskuratu txartela lehenbailehen!

'Mugarriz mugarri Arrasate ezagutu' eta antzerkia, poesia eta pintura ikuskizuna

Datorren domekan, azaroaren 23an, AEDk eta AKPk lankidetzan *Mugarriz mugarri Arrasate ezagutzen* izeneko ekimena antolatu dute. Hitzordua 09:00etan egin dute, Arbolapetan. Paseoan Arrasateko mugan dauden inguruak ikusiko dituzte. Oraingo honetan, Aretxabaletako eta Oñatiko lurrekin mugan dagoen Txaeta ibarra bisitatuko dute. Han, besteak beste, Andramari Zuri ermita eta Loramendi jaio zen baserria ikusiko dituzte. Ospitale ostetik Bedoña inguruetara joko dute.

Egun berean, azaroaren 23an, *Eskubiko paret*a ikuskizuna antolatu dute gaztetxean. 18:30ean izango da. Oreretako Mikelazulo elkartearen artistek egingo dute ikuskizuna. Besteak beste, antzerkia, poesia eta pintura uztartuko dituzte, zuzenean. Eguneroko galdera metafisikoen gainean jardungo dute.

Azaro bukaeran, Jokin Zaitegi lehiaketako liburuaren aurkezpena egingo dute

Eguna oraindik zehaztu barik dagoen arren, azaro bukaeran, Jokin Zaitegi lehiaketari esker argitaratu duten liburuaren aurkezpena egingo dute. Liburu horrek *Zoririk ez* izena dauka eta Urtzi Urrutikoetxeak euskaratu du. Jatorrizko liburua Imre Kertesz hungariarraren *Sorstalanság* da. Kertesz 2002ko Literaturako Nobel saria jaso zuen. Arrazoi horregatik, AEDk eta Elkarlanean argitaletxeak idazle hori aukeratu zuten.

Durango Azokaren aurretik *Zoririk ez* liburua Arrasaten eta hiribururen baten, bietan, aurkezteko asmoa dute. Horrekin batera, liburu horretan holokaustoaren gainean idatzi izan dutenez, AEDk eta Elkarlanean argitaletxeak gai horrekin zeri-kusia duen beste ekitaldiren bat antolatzeko asmoa daukate.

POLITIKA/ HERRI ANITZA ALDERDIA

“Gure borroka hori izango da: Arrasateko benetako egoera politikoa islatzen saiatzea”

ARRASATE PRESS

Hauteskundeak izan zirenetik ia sei hilabete pasatu dira. Udal gobernua eratuta dago, eta hasi dira eguneroko lana egiten. Baina bada herriko talde bat gaur egungo egoerarekin batere konforme ez dagoena: 16 urtean Udaleko buruzagitza izan eta gerò, gaur egun erakundeetatik erabat kanpo dago.

Bai. Haserre daude Herri Anitzako ordezkariak. Haserre hauteskundeetan gertatutakoarekin, eta hauteskunde osteko egoerarekin. Hasteko, honako mezua helarazi gura dute: “Egoera guztiz ez-demokratiko eta onartezinean gaud; hauteskundeetatik sortutako korporazioak ez du gaur egungo egoeraren gaineko inolako ardurarik erakutsi. Ez digute inolako proposamenik egin. Arrasateko herritarren portzentaje handi bat (bostetik bat azken hauteskundeetan) jokoz kanpo eta ordezkari-tza barik daude gure Udalean, modu guztiz ez-demokratiko eta bortitzean. Baina ezer gertatuko ez balitz bezala jokatzan dabil-tza”.

Eta ondorioz, eskaera bat egiten dute: “Egoera hau demokratikoa balitz bezala jokatzan dabil-tzan alderdiei eskaeri nahi diegu guk parte hartzeko modua eskaini diezagutela; eskubidea dugu, besteek bezalaxe, herriko bizi-tzan eta instituzioetan parte hartzeko; hautagai eta hautatuak izateko. Bestela, Aznarri arrazoa ematen zabilzate. Gaur egun instituzioetan Aznarren lagunak daudela esan genezake.” Eta uste dute gauzak bideratzeko konponbide bakarra hauteskundeak berriro egitea dela. Badakite hori ez dela egiteko erraza, baina zera diote: “zailagoa lortu dugu, eta demokratikoki, ezinbestekoa da egoera bere onera eramateko”.

Gaineratutakoaren arabera, egoera “ez-demokratikoa” onartzen dutenek hartzen dituzten erabakiak kutsatuta daude, ez dute izaera demokratikorik.

Aurrera begira zer egingo duten galdetzean zera erantzun dute: “Ez gara konformatuko; modu batera edo bestera parte hartzeko eskubidea dugu eta joko zelaian sartu nahi dugu. Hauteskundeak ez badituzte egiten, gutxienez, azken hauteskundeetan izan genituen emaitzen arabera egin beharko litzateke. Ezin dugu ahaztu, ez eta onartu ere, 16 urtez Arrasateko Udalean gobernuan izan den ezker abertzalea bizitza zibiletik eta politikotik kanporatua izatea, aukera gabe uztea, erakundeetatik “ezabatua” izatea. Gure borroka nagusia hori izango da: Arrasateko benetako egoera politikoa islatzen saiatzea

“Gaur egun instituzioetan Aznarren lagunak daudela esan genezake”

“Udalean dauden alderdiek dute obligazioa guri parte hartzeko formulak eskaintzeko”

“Urtetan garatu, gorpuztu eta indartu den proiektu politikoa badirudi desagertu dela”

eta benetako ordezkari-tza hori modu batera edo bestera gorpuzten saiatzea”.

HERRIGINTZA JARRAITU BEHAR

Behin hori guztiori esanda, diote euren ondorengo jokabidea herrigintza izan beharko dela. Herrigintza Udaletik kanpo eta Udalean, ahal duten neurrian. Eta egoera berri horri egokitu behar zaion antolaketa modu berri bat egiten dabil-tza.

Herri Anitzaren iritziz, Udalean ez dago oposizio-rik: “Bate-tik, praktikara jota, guztiek onartzen dutelako inposatu zaigun egoera hau, eta bestetik, egoera honi aurre egiteko borondatea dugun bakarrok Udaletik bota egin gaituztelako. Jokaldia borobiltzeko, gobernuan ez dagoen alderdiarekin (PSE-EE) haren zinegotzi bat liberatzeko hartutako akordioak oso egoera erosoan uzten du alderdi hori: ezker abertzalea desagertu arazita eta *patriotismo* konstituzionala benetako agintean.

Eta Herri Anitzak salatzen duen beste egoera bat honakoa da: “Udalean urtetan garatu, gorpuztu eta indartu den proiektu politikoa badirudi bat batean erabat desagertu dela, ez dela existitu historian. EAJ-EA koalizioaren gainean, berriz, honakoa dio: “EAJ-EA koalizioak, hauteskunde kanpainan, Udalera-ko proiektu berri bat zuela agindu



ARRASATE PRESS

zien arrasatearrei. Baina, lehen ere salatu genuen moduan, ikusten gabiltza ez dagoela ezer berririk. Hortaz, uste dugu iruzur garbia egin diela arrasatearrei. Oraingo, behintzat, egiten dabil-tzan gauza bakarra da aurrekoek (bereziki ezker abertzaleak) egindako lanetik xurgatzea. Arrasaten gaurkotatuta duten asmo, proiektu eta helburu nagusi gehienek iragana dute; arrasate-

ar askoren esku-hartzearekin landutakoak, eztabaidatutakoak eta behin eta berriz bideratutakoak dira. Herri Anitzaren beldurra da irizpidez eta jokabidez aldatzen joango direla, eta Herri Anitzak ordezkatzan duen taldeak udal kudeaketan egindako ahalegin guztiak (parte-hartze demokratikoa landuz) galdu egingo direla. Kudeaketa mota guztiz autokratikoa ezarriko dutela diote, per-

sonalista eta iluna.

Bestalde, oso kezkatuta daude Arrasateko Udalean dagoen euskararen egoerarekin. Uste dute gobernuan dauden alderdi-tako batzuek euskararekiko oso interes gutxi erakutsi dutela orain arte, eta ez dute sinisten euskarazko eskolak hartuta egoera konponduko dutenik. Udaletxean bertan eskola partikularrak hartzea ere kritikatzan dute.

Udalaren proiektuen gainean

Udalak egindako ekimen batzuk aztertu ditu Herri Anitzak. Hona hemen esandakoa:

“Orain, bat-batean, Enpresako kudeaketaren pareko kudeaketa Udalean ezarri nahi dela esatea norberaren burua edo herritarrek engainatzea da. Esan nahi diegu, hasteko, Udala ez dela enpresa tipiko bat; baita orain arte Udalaren kudeaketa egokiena zein izan behar den etengabe eztabaidatu izan dugula; aurretik ibili garenok ahalegin guztiak egin ditugula lan horretan. Hobetzen joatea, zilegi ez ezik, beharrezkoa da; baina, nola pentsatzen duzue hori egitea, herritarren multzo handi batek parte hartu gabe?”

Azaleko itxuraldaketa antolamendu berri bezala saltzen dabil-tza, euren buruak “jakitun” gisa aurkeztuz. Adibidez, lehengo 13 batzordeak sei batzordetan biltzeak, praktikan herritarren parte hartzea zaildu besterik ez du egingo. Hori ote da benetako

asmoa? Guk hala uste dugu.

Erabakiek zuzenak eta bidezkoak izan behar dute, lehenik eta behin. Trukean erabakiaren gardentasuna dago. Eta horrez gain, erabakiak azkar hartzea.

Eta zein irizpidez erabili dute osoko bilkurak (Udalean izaera publikoa duen batzar nagusia) astelehenetan 09:00etan ipintzeko? Esku-hartzea erraztea ala joateko zailtasunak ipintzea? Horretarako bost zinegotzi liberatu? Horretarako igo dituzte zinegotzi liberatuen eta alkatearen soldatak %30 inguru? Lehen ere ikusita daukagu zein den ondorioa: herritarrei bizkarra ematen dion kudeaketa.

Egitamu Orokorren gainean, jakin izan dugunaren arabera egin behar dituzten aldaketak interes pribatuen mesedetan izango direla uste dugu, herritarren mesedetan baino. Nola mantendu behar dute, adibidez, Babes Ofizialeko Etxe kopurua?

GIZARTEA/ Gabonak

Gabonetako jaiotza ipintzeko taldea sortu dute: Belenzaleen Elkarte

UBANE MADERA

Gabon jaiak gerturatzeko dabilzala-eta, Arrasaten Gabonekin lotutako elkarte bat sortu dute: Arrasateko Belenzaleen Elkarte. Azken bi urteotakoari eutsi eta jaiotza antolatu gura dute.

Orain dela pare bat urte ipini zuten aurreneko aldiz jaiotza Santa Barbarako parkean. Zenbaitzuk apurketak egin bazituzten ere, oro har, herritarrek gustura hartu zuten ekimena. Hala, iaz gauza bera egin zuten, Garibai Etorbidean oraingoan, jende gehiagok ikusi ahal izateko. Eta aurtengo Gabonetarako hilabete falta denean, dagoeneko sortu dute jaiotza ipiniko duen talde bat: Arrasateko Belenzaleen Elkarte, hain zuzen ere. San Andresko parrokoak eta zenbait arrasatearrek sortu dute talde hori, jaiotza ipintzeko ohitura berreskuratzeko helburuarekin. Euren esanetan, erlijioarekin lotutako ekimena izateaz gain, ekimen kulturala ere badelako.

Besteak beste, Gipuzkoako Belenzalen laguntza teknika izango dute. Baina, horrez gain,



Iaz Garibai etorbidean ipini zuten jaiotza eta jende askok ikusi ahal izan zuen.

laguntza ekonomikoa ere behar dute. Hori lortzeko, bazkideak lortu gura dituzte. Bazkide bakoitzak 6 euroko gutxieneko laguntza eman beharko du. Laguntza gura duenak San Andresko parrokiako bulegora joan beharko du

edo 943 79 19 21 telefonora deitu (bulego orduetan).

Horrez gainera, iaz moduan, Gabonetako posta-txartelak salduko dituzte.

Aurten ere Garibai etorbidean ipini gura dute jaiotza.



Kalean da Udalaren zerbitzuen gaineko gidaliburua

Bigarren urtez, Arrasateko Udalak gidaliburua atara du. Ikasleei zuzendutako hezkuntza jardueren eta irakasleendako, gurasoendako eta ikasleendako interesgarriak izan daitezkeen zerbitzuen berri ematen du. Informazio osoa ematen du, gainera: zerbitzuak non eta noiz egin behar diren, telefonoz, izena emateko epeak... Eskola guztietan banatu dute, eta gazte bulegoan utzi dute. Guztira, 550 ale plazaratu dituzte. Eta, berritasun moduan, aurten Udalaren web orrian ere ikusgai dago gidaliburua. Modu horretan, edozeinek kontsulta dezake. Honako hauxe da helbidea: www. arrasate-monragon.org. Era berean, eta iazko gidaliburuarekin konparatzen badugu, aurtengoak zerbitzu gehiagoren berri ematen du: Emakumeen Txokoa, gaztetxea, gazte-lokalak eta kirol arloa. /U.M.

Garapenaren bidean dauden herrialdeen gaineko ekimenak

U.M.

Azken urteotan egiten dutenarekin jarraituz, Harreman elkarteak bidezko merkataritzaren aldeko ekimena egingo du. Bihar izango da, zapatua. Horrez gainera, datorren asterako hitzaldiak antolatu dituzte.

Gobernuz kanpoko Harreman elkarteak bidezko merkataritzaren aldeko denda dauka Eroski hipermerkatuaren sarreran, eskuma aldean. Denda hori urte guztian zabalik egoten da; baina, bihar, ekimen berezia egingo dute haren inguruan. Hain zuzen ere, denda saltzen diren produktuak probatzeko aukera eman gura dute, jendeak ikusi dezan zelakoak diren han saltzen diren jakiak, garapen bidean dauden herrietan egindako produktuak kalitatezkoak direla erakusteko, eta produktuak erosiz, bidezko merkataritzaren alde egin deza-

ten. Horretarako honako leloa aukeratu dute: *hemen erosten baduzu han jaten dute*.

Hori egiteko aukera egun osoan egongo da, Eroskin dagoen dendarara joatea besterik ez dago.

BORONDATEZKO LANGILEEN HITZALDIAK

Horrez gainera, aurten Hegoamerikan egon diren ibarreko borondatezko gazte langileek izandako esperientzien berri izateko aukera ere emango du Harreman elkarteak. Horretarako hitzaldiak antolatu dituzte. Datorren eguaztenean izango dira, hilak 19, 19:00etan, Monterron jauregian. Parte hartuko duten hizlariak, berriz, honakoak dira: Arrasatek, Jone Morras eta Ekain Zubizarreta; Aretxabaleatik, Itxaso Uribeberria; Bergararik, Kepa Eguren eta Oñatik, Miren Elorza. Garapenaren bidean dauden zenbait herrialdetan izandakoak kontatu dituzte horiek guztiek.

Segurtasun zerbitzua ipiniko dute Eskualde Ospitalean

UBANE MADERA

Eskualde Ospitaleak segurtasun enpresa kontratatuko du datorren urtean. Azkeneko aldiz gertatutako istiluen ostean eta ikusita halakoak behin baino gehiagotan gertatzen direla hartu dute erabaki hori.

Orain dela bi aste, burua nahastuta zuen gaixo batek apurketa dezente eragin zituen Eskualde Ospitaleko larrialdien gunean. Ospitaleko langileek ere susto handia hartu zuten gertatutakoarekin. Azkenean, Ertzaintza joan behar izan zen bazterrak baretzera, Eskualde Ospitaleak ez du eta halakoei aurre egiteko segurtasun zerbitzurik. Itxura denez, gainera, ospitaleko langileek behin baino gehiagotan jasan izan dituzte antzerako gertaerak.

Horren guztiaren aurrean, langileek orain dela urtebete

eskatu zioten zuzendaritzari segurtasun zerbitzuren bat kontratatzeko. Baina, orain arte, ospitaleko zuzendaritzak ez du halakorik kontratatu, aurrekontuarekin lotutako arazoak zirela medio.

Horren harira, esan beharra dago Arrasateko Eskualde Ospitaleak izan ezik, Osakidetzako gainerako ospitale guztiek badutela halako zerbitzurik.

DATORREN URTEAN, BAI

Edozelan ere, azkeneko sustoaren ostean, badirudi zuzendaritzak sakonago aztertu duela egoera. Eta erabaki dute datorren urtean aurrera, Arrasateko ospitaleak izango duela segurtasuna bermatuko duen zerbitzuren bat.

Modu horretan, eta ospitaleko eta hango langileen segurtasuna bermatzeaz gain, ospitalea joaten diren gaixoena ere zainduko dute.

LABUR

Urrutiko agintearekin funtzionatuko duen hesi automatikoa ipiniko dute Esmak inguruan

Zabaleta inguruan dauden lantegietara sartzeko bide berria egin zuten orain dela gutxi. Kontua da ordura arte errepidetik zuzenean sartzen zirela kamioiak eta hango lantegietara, eta hori saihesteko bide berria egitea erabaki zutela. Hala, Eroskiko aparkalekuko bidean, noranzko bakarra zegoen lekuan, bi noranzko ipini zituzten, bata Eroskirako eta bestea lantegietara joateko.

Orain, lantegietara joateko bide berri horren sarreran hesi automatikoa ipiniko duela erabaki du Arrasateko Udalak, Cartonajes Esmak lantegiaren sarreran, alegia. Urrutiko agintearekin funtzionatuko du hesi horrek; eta bide hura erabili behar duten guztiei banatuko zaie hesia itxi eta zabaltzeko urrutiko agintea.



ARIZMENDIKO IKASLEAK ALDIZKARIA EGIN GURAN

Joan den astean, Arizmendiko San Viator guneko ikasleak bisitan izan genituen Goienan. GOITB eta Arrasate Irratia ikusteaz gain, gurean ere izan ziren bisitan: ARRASATE PRESSen, hain zuzen. Hainbat kurtsotako 27 ikasle etorri ziren, bi taldetan banatuta. Ikasle horiek aldizkari bat egin guran dabilta, eta guk gurea nola egiten dugun erakutsi genien. Azalpenak eman eta gero, galdera mordoa

egin zizkiguten, eta guztiei erantzuna ematen ahalegindu ginen. Zera agindu ziguten: aldizkaria egiten dutenean, ale bat ARRASATE PRESSendako izango dela. Arizmendiko ikasleak opari horrekin etortzen badira, seguru txutxu-mutxuen tartean aldizkari horren berri emango dizuegula. Batek daki, akaso, guk irakatsi beharrean eurek erakutsiko digute aldizkari hobea nola egin.

ARRASATEKO GAZTETXOAK GAZTAINA BILA

Bi argazki horietan ikusten dugunez, Arrasateko gaztetxoak gaztaina bila ibili dira egunotan. Bedoñabeko ikasleak eguaztenean Monterronen izan ziren gaztainak jasotzen. Jasotako gaztainak erakusketa baterako eta eskulanak egiteko erabili zituzten, baina gaztainak jasotzeaz gain, hostoak

jasotzen ere ibili ziren. Eskuinaldeko argazkia ere Bedoñabeko ikasleena da. Eguenean, gaztainak jateko aukera paregabea izan zuten, baina lasai, ez ziren aurreko egunean Monterronen jasotako gaztainak. Orain ez bezala, garai batean gaztainak eguneroko ogia ziren, ez zeukaten-eta besterik jateko.



2003-2004 DENBORALDIKO OINTXE ARRASATE SASKIBALOI TALDEA

Gorka Zurutuzaren mutilek erraz baino errazago irabazi zuten zapatuan (95-59)

Azkeneko emaitza txarrak zirela-eta Ointxe Arrasatek irabaztea behar zuen; talde nafarra ez zen kontrario izan

XABIER URZELAI

Ointxe Arrasate Saskibalo Taldeak garaipen garrantzitsua erdietsi zuen zapatuan. Atzeko postuetan ez geratzeko beharrezkoa zuten garaipena, eta Mondragoeko taldeak ezin hobeto erantzun zuten.

Gorka Zurutuzak zuzentzen duen taldeak 95-59 irabazi zion CN Pamplona taldeari. Joaneko partiduan nafarrek hamalau puntuko aldearekin irabazi zuten, eta inork ez zuen espero Ointxek Iturripen horrelako aldearekin irabaziko zuenik.

Arrasateko taldeak, baina, ondo jokatzen duenean gauzak erraz egiten ditu: erraz defendatzen dute; erraz saskiratzen dute (hiruko hamabi saskiratze egin zituzten) eta kontrarioa erraz hartzen dute mendean. Hori izan zen zapatuan Iturripera hurbildu zirenek ikusi ahal izan zutena, baina egia da hori ez dela zapaturoko kontua. CN Pamplona taldeak erraztasunak eman zituen, eta Ointxeko jokalariek ondo aprobetxatu zuten hori.

LEHENENGO LAURDENA, PAREKATUA

Mondragoeko taldeak jipoi galanta eman zion Nafarroako taldeari, baina lehenengo laurdena parekatua izan zen. Nafarrak Ointxeakoak baino esnatuago kantzaxaratu ziren. Hala, bosgarren minutuan kanpotarrak ziren



Ointxe Arrasate Saskibalo Taldearen argazkia, CN Pamplona taldea jipoitu aurretik.

aurretik (7-12). Partiduko gakoa, baina, bigarren laurdenean egon zen: kanpotarrek bost puntu baino ez zituzten egin, eta Ointxe Arrasatek aurrera egin zuen markagailuan (43-26). Hamazazpi puntuko aldea eskuratuta, Gorka Zurutuzaren mutilek ez zuten behera egin. Alderantziz, orduan

etorri ziren Ointxekoen minutu onenak. Iturripera hurbildu zirenek saskibaloian nola jokatzen den ikusi ahal izan zuten. Joko erakustaldia egin zuen ibarreko jokalariz osatutako taldeak, eta zaleek asko eskertu zuten hori.

Partiduen nondik norakoa ikusita, entrenatzaileak jokalaria

guztiei eman zien jokatze aukera, eta jokalaria gazteek ere maila polita erakutsi zuten: junior mailako Jagoba Domingok eta Paul Isasak, hain zuten.

Horrez gain, azpimarratzekoa da Iñigo Biain oñatiarrak jokatu zuen partidua, lan handia egin zuen-eta uztaiaren azpian. Horrekin batera, hegalekoek ere ondo baino hobeto jokatu zuten; hiruko jaurtiketetan egun biribila izan zuten, hamabi saskiratze egin zituzten-eta.

KONTRARIO GOGORRA

Mondragoeko taldeak oraingo asteburuan ere kontrario nafarra izango du. Oraingoan, baina, Arrasateko taldeak kanpoan jokatuko du, hirugarren postuan dagoen Caja Rural Ardoi taldearen

Joaneko partiduan galdu eta gero, inork ez zuen espero Ointxek horren erraz irabaztea

Mondragoeko saskibalo taldeak bigarren laurdenean erabaki zuen partidua

Igoera fasera sailkatzea ez da helburu erraza, baina oraindik badago aukerarik

kontra. Talde nafarra gogorra da, baina arrasatearrek irabaz dezakete partidua, orain arte jokatutako zortzi norgehiagoketatik lau irabazi eta beste horrenbeste galdu dituzte-eta.

Horrez gain, laugarren eta bosgarren postuan dauden Zornotza eta Jarrilerros taldeek elkarren kontra jokatuko dute oraingo asteburuan. Bi taldeetako batek aurrera egingo du, eta bestearen lekua Ointxek har dezake, baldin eta Nafarroan irabazten badu. Laburbilduz: gauzak ondo eginez gero, asteburu biribila izan daiteke Arrasateko saskibalo taldearendako. Ea gure jokalariek behar den bezala aprobetxatzen duten.

Liga Txapelketa gaitza

Ointxe Arrasatek igoera faserako sailkatzea du helburu. Ez da helburu erraza, lehenengo lau taldeen artean sailkatu behar da-eta. Aurreko urteotan Mondragoeko taldeak helburu bera izan du, eta aurrekoetan lortu badu ere, Ointxeakoak justu-justu ibiliko dira aurretan.

Joan den zapatuko partidua galdu izan balute, Mondragoeko taldea ia aukera gabe geratuko zen. Lortutako garaipenak, baina, atek zabalik utzi ditu. Ointxe Arrasatek dagoeneko zortzi norgehiagoka jokatu ditu, eta hiru partidua irabazi dituzte. Seigarren postuan dago Mondragoeko taldea eta aurreko hiru postuetan dauden taldeek Ointxek baino partidua bat gehiago irabazi dute. Garaipen bateko aldea ez da handia, eta oraingo asteburuko kontrarioa gogorra bada ere, aurrerapauso handia egin dezakete. /X.U.



Jon Basurko
Ointxe Arrasateko presidentea
Arrasate



Daniel Aiestui
Delegatua
Arrasate



Gorka Zurutuz
Entrenatzailea
Oñati



Jagoba Gamarra
Eskolta
Aretxabaleta



Jokin Lazpiur
Antolatzailea-eskolta
Arrasate



Gorka Kintana
Eskolta
Arrasate




Iñigo Ziarsolo
Antolatzailea
Oñati



Iban Herzog
Antolatzailea
Antzuola



Haritz Ancin
Hegalekoa
Arrasate



Jagoba Domingo
Hegalekoa
Arrasate



Ander Mallabiarrena
Pibota
Arrasate



Mikel Biain
Pibota
Oñati



Iñigo Biain
Pibota
Oñati



Paul Isasi
Pibota
Arrasate

Arrasateko atleta gazteek zazpi domina eskuratu zituzten Anoetan

XABIER URZELAI

Joan den domekan, Arrasateko kadete eta alebin mailako atletek Anoetan izan zen txapelketan hartu zuten esku. Mondragoeko gaztetxoek zazpi domina eskuratu zituzten; horietako sei urrezkoak. Oraingo asteburuan Irungo krosa jokatu da.

Joan den domekan, Arrasateko kadete eta alebin mailako atletek leku onean utzi zuten Arrasate. Kadete mailan 14 urteko atletek hartzen dute esku. Maila horretan, 60 metroetako lasterketan, Iñaki Etxagibelek urrea eskuratu zuen; Jon Ander Amado bigarrena izan zen eta Imanol Esperesate bosgarrena. Mila metroetako lasterketan ere arrasatear bat izan zen azkarrena: Markel Blanco.

Errelebutan ere Mondragoekoak izan ziren jaun eta jabe: Iñaki Etxagibelek, Jon Ander Amadok, Markel Blancok eta Imanol Esperesatek osatu zuten laukotea, eta eurak izan ziren azkarrenak.

Alebin mailan 10 urteko atletak dabilta. Iñigo Uribarren gaztetxoak urrezko domina lortu zuen 600 metroko lasterketan, eta 60 metroko lasterketan Iker Ger-



Aurten ere Zuhaitz Ezpeleta izan da Behobia-Donostian mondragoetar azkarrena.

man zortzigarrena izan zen; Adei Martin hamargarrena; Rafa Cordero hamabigarrena; Aitor Mondragon hamahirugarrena eta Alvaro Sanz hamabosgarrena. Guztiek ere maila polita erakutsi zuten Anoetan.

Oraingo asteburuan, Irungo krosean ere hainbat arrasatear izango dira: Maria Jose Gil, Marifran Alonso, Javier Mentxaka eta Cesar Diez beterano mailan; Markel Blanco kadete mailan eta Iñi-

go Aranburu alebinetan, hain zuzen ere.

ZUHAITZ EZPELETA AZKARRENA

Domekan jokatu zen Behobia-Donostia maratoni erdian Zuhaitz Ezpeleta izan zen mondragoetar azkarrena. Zuhaitzek bere marka hobetu zuen: 1:09:20. Joan den urtean ere Zuhaitz izan zen arrasatear azkarrena. Domekan gura baino gehiago sufritu behar izan zuen, bero larregi egin zuen-eta.

FOTOKIROLA



Joko gutxi Mondraren eta UDAREN arteko derbian (1-1)

Mondrak eta UDAk 1-1 egin zuten joan den zapatuan Atxabalpen. Lehia handiko norgehiagoka izan zen, baina hala ere, ez zen partidu ikusgarria izan. Bi taldeek denbora luzea zeramaten Liga Txapelketan elkarren kontra jokatu barik, eta hori gura baino gehiago igarri zen. Errespetu handiz zelairatu ziren bi taldeak; izan ere, entrenatzaileen ardura nagusia taldeek zelaiaren lekua ez galtzea zen, eta Josu Zubiaren eta Igor Gordobilen mutilek zeukaten gutzia eman bazuten ere, partidua ez zen ona izan. Lehenengo zatia 0-0 amaitu zen; bigarren zatian, berriz, UDA taldeko Eriko-k egin zuen aretxabaletarren gola. Mondrak hamabost minutu geroago erantzun zuen; Muruak egin zuen gola, baina jokaldi eztabaidagarria izan zen. Asteburu honetan Mondrak beste derbi bat jokatu du; oraingoan, Oñatin, Aloña Mendiren kontra. /X.U.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Koka Junior - Saukelu Scream	1-2
AT Celaya - Aloña Taberna	3-5
Rayo Aldeano - KPPC	11-3
Bikain Akademia - Abocajarro	1-8
You Know - Alpagat Estutu!!!	2-3
Billy & The Cowboy - Iritz Taberna	3-7

B MULTZOA

AC Surcos - Tomahawk	5-1
Whiskeria - Speed Boys	3-5
Errasti Kristaldegia - Lasagabaster	2-4
Dream Team - Dribling	2-6
Etixerat - El Ekipo A	9-6
Goma-2 - Fuxion	8-3

PARTIDUAK

AZAROAK 15, ZAPATUA. EPAILEAK

09:50: El Ekipo A - Dream Team.	Iritz Tab.
11:00: Iritz Tab. - Rayo Aldeano.	El Ekipo A
12:00: AC Surcos - Goma-2.	Rayo Aldeano
13:00: Abocajarro - Koka Juniors.	Goma-2
14:00: Fuxion - Etixerat.	Koka Juniors
15:00: Lasagabaster - Whiskeria.	Fuxion
16:00: Betraye - You Know.	Lasagabaster
17:00: Aloña Tab. - Saukelu Scre.	Betraye
18:00: Speed Boys - Tomahawk.	Saukelu

AZAROAK 16, DOMEKA

10:50: Billy & The. - Bikain Akad.	Alpagat
12:00: Alpagat Est. - AT Celaya.	Billy & The.
13:00: Dribling - Errasti Kristald.	AT Celaya

Deskantsua: KPPC

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Rayo Aldeano	4	2
2. Aloña Taberna	4	2
3. Alpagat Estutu!!!	4	2
4. AT Celaya	2	2
5. You Know	2	2
6. Abocajarro	2	2
7. Iritz Taberna	2	2
8. Betraye	2	1
9. Saukelu Scream	2	1
10. Koka Juniors	0	2
11. Billy & The Cowboys	0	2
12. Bikain Akademia	0	2
13. KPPC	0	2

B MULTZOA

	P	J
1. AC Surcos	4	2
2. Dribling	4	2
3. Goma-2	4	2
4. Etixerat	2	2
5. Dream Team	2	2
6. Tomahawk	2	2
7. Errasti Kristaldegia	2	2
8. Speed Boys	2	2
9. Lasagabaster	2	2
10. El Ekipo A	0	2
11. Whiskeria	0	2
12. Fuxion	0	2

UKABILKADA EMATEGATIK KANPORATUA

ALPARGAT-ESTUTU TALDEKO JOKALARI BAT 'KO' GERATU ZEN

Zapatu arratsaldean You Know eta Alpagat-Estutu taldeek indarrak neurtu zituzten. Badirudi batzuek ez daukatela oso argi Zaldibarko Txapelketan zein kirol jokatu den; eta ez, ez da boxeo. Partidua hasi eta gutxira, Alpagat-Estutu taldeko jokalaririk batek falta egin zion You Know taldeko beste jokalaririk bati. Gauza bat da Zaldibarko kolpeka ibiltzea eta beste bat faltarik ez egitea. Faltak futbolaren parte dira, eta falta bat jasotzea onartzen ez duenak hobe du etxean geratu. Itxuraz, You Know taldeko jokalaririk ez zion graziarik egin falta horrek, eta ukabilkada batekin erantzun zuen; atzetik jo zion falta egin zionari, lepoan. Alpagat-Estutu taldeko jokalaria luze erori zen lurrera, eta konorte barik geratu zen. Iluntzean ospitalera joan zen, eta medikuak lepoa jarri dio. Antolatzaileek txapelketatik kanpo utzi dute You Know taldeko jokalaria.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Aloña Mendi - Mondra	Preferente. Zapatuan. 15:30. Azkoagainen.
Mondra - Anaitasuna	Ohor. gazt. Zapatuan. 15:30. Atxabalpen.
Arrasate - Eibartarrak B	Big. gazt. Domekan. 12:00. Atxabalpen.
Arrasate - Lagun Onak	Ohor. kadet. Zapatuan. 11:00. Atxabalpen.
Arrasate B - Bergara B	Big. Kadet. Domekan. 09:45. Atxabalpen.
Aloña Mendi - Arrasate	Infantil. Domekan. 11:00. Azkoagainen.
Ilintxa - Mondra	Neskak. Zapatuan. 16:00. Legazpin.

ESKUBALDIA

AGR Arrasate - Urola Agip	Lehen territ. Domekan. 12:00. Iturripen.
Sanio Elgoibar - Arrasate C	Big. territ. Domekan. 11:00. Olaizagan.

Arrasate B - Ereintza

Big. territ. Domekan. 10:30. Iturripen.	
Bergara - Gatz Museoa Jakion	Gazteak. Domekan. 12:15. Labegaraletan.
Bergara - Gatz Museoa Jakion	Kadeteak. Domekan. 10:30. Labegaraletan.

SASKIBALDIA

Caja Rural Ardoi - Ointxe Arrasate	Seniorrak. Ordua eta eguna zehaztu gabe.
Cafes Aitona - Ointxe Arrasate	Juniorkak. Zapatuan. 12:00. Donostian.
Arrasate - Gros Xake B	Kadeteak. Zapatuan. 12:00. Musakolan.

ERRUGBIA

Zarautz - Arrasate	Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Zarautzen.
Independiente Santander - Arrasate	Kadeteak. Zapatuan. 16:00. Santanderren.
Athletico Bera Bera - Arrasate	Gazteak. Domekan. 12:00. Anoetan.

ANTZERKIA/ Ados taldeak 'Las mujeres de verdad tienen curvas' ikuskizuna egingo du

Ados taldeak, bost emakumeren eskutik, emigrazioaren gaia Amaiara eramango du

IKER BARANDIARAN

Etzi, domeka, Ados antzerki taldeak *Las mujeres de verdad tienen curvas* antzezlana eskainiko du Amaia Udal Antzokian. 19:30ean izango da. Jatorrizko antzezlana Josefina Perezek idatzi zuen, AEBetan. Gerora, Ados taldeak lana egokitu egin du.

Domekan, Ados antzerki taldeak *Las mujeres de verdad* ikuskizuna eskainiko du. Lan horrek 90 minutu irauten du eta helduei zuzendutako komeria da. Lanaren jatorrizko izena *Real women have curves* da, eta AEBetan bizi den mexikar jatorriko Josefina Lopezek idatzi zuen.

Lan hori 1990eko maiatzaren 25ean estreinatu zuten San Franziskoko La Mision antzokian. Ikusleek eta antzerki kritikariek oso harrera ona egin zioten. 1994an, antzezlaren bi bertsio egin zituzten: bata ingelesez eta bestea gaztelaniaz. Azken hori AEBetan bizi diren chicanoendako egin zuten.

2001ean, antzezlanean oinarritutako filma egin zuten eta izen bera ipini zioten. 2002an, Sundanceko zinema jaialdian aurkeztu eta bi sari jaso zituen. Urte berean, Donostiako jaialdian Gazteriaren saria eman zioten.

CHICANOEN EMIGRAZIOA

Jatorrizko lanak AEBetan bizi diren emigranteak ditu protagonista. Are gehiago, ezkutuko tailer baten lan egiten duten bost emakume lodiren egoera islatzen du. Emakume horiek bizi duten egoera ilegala, euren artean daukaten elkarkidetasuna, dituzten arazo eta ametsak elkarri kontatzen dizkiote. AEBetako *The Villa-*

Jatorrizko antzezlana AEBetan bizi den emigrante mexikar batek idatzi zuen

Hegoamerikako emakume emigranteen esperientzia goratu dute

ge voice egunkariaren arabera, *Las mujeres de verdad tienen curvas* antzezlana da azken bost urteotan egin duten lan chicano garrantzitsuena.

ADOS TALDEAK MOLDATU EGIN ZUEN

Ados taldeak kalitateko antzerki komertziala egiten du, betiere gizarte-interesa bermatzen badu. Honako lan hauek ere antzeztu ditu Ados taldeak: *Desperados*, *Manolito Gafotas*, *Gus y Gas* eta *El amigo de John Wayne*, besteak beste.

Ados taldeak antzezlana Espainiako Estatuko hiriburu baten kokatu du, AEBetako auzo chicano baten kokatu beharrean: Bartzelonan, Madrilen edo Bilbon. Eta jatorrizko bertsioan mexikarrak ziren hegoamerikar bilakatu ditu. Antzerki taldeak *casting* erraldoia egin zuen eta Estatuan bizi diren bost emakume kubatar kontratatu zituen. Ados taldearen bertsioan umorea



Antzezlari horretan, Espainiako Estatuan bizi diren bost emakume kubatarrek egiten dute lan.

ADOS ANTZERKI TALDEA

eta komeria oso presente daude, baina emigrazioaren gaiak eta horien aldeko aldarrikapenak garrantzi handia dute.

Bost emakume horiek ezkutu tailerrean lanean dihardute. Tailerra hondora ez dadin, lan handia egin behar izango dute, eta euren egoera ez da oso ona. Izan ere, Espainiako Estatuan legez kanpo bizi dira. Hala ere,

elkarri laguntasun handia eman go diote. Anak kontaktatzen du bizi duten historia. Ana bostetatik gazteena da. Auzotik alde egin, Unibertsitatera jo eta idazle bilakatu gura du. Gainerako emakumeek barre egingo diote, eta bere asmoak amets feministak direla esango diote.

Antzezlari horrek Hegoamerikako emakume emigrantearen

esperientzia du oinarri. Benetako emakumeen gorputza eta boterea goratzen ditu eta emakumeek elkarrekin lan egiten dutenean lortzen duten elkar ulertzea nabarmentzen du.

Garbi Losadak moldatu du Ados taldearen antzezlana. 2003ko apirilean estreinatu zuten, Barakaldo antzokian. Maiatzaren 9an bi urteko bira hasi zuten.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Gaur, egubakoitza, Juanlu Escudero aktoreak *Trainspotting* antzezlan eskainiko du.

ARRASATE PRESS

ANTZERKIA/ Azaroan lau ikuskizun antolatu dituzte

Egubakoitzero, antzerkia eta bakarrizketak lamaian

IKER BARANDIARAN

Herrian taberna gutxik antolatu dituzte ikuskizunak. Are gehiago, batzuek horretarako oztupoak dituzte. Ikuskizun gehien antolatzen dituzten tabernak Jai Zale eta lamai dira. Azken horrek azaroko lau egubakoitzetan ikuskizunak antolatu ditu.

Iamaie tabernako arduradunek hainbat ekitaldi antolatu dituzte azaroko egubakoitzetan. Bakarrizketak eta antzezlanak farte-katuko dituzte. Joan den egubakoitzean, azaroaren 7an, eta azaroaren 21ean bakarrizketak programatu dituzte. Gaur, egubakoitza, eta azaroaren 28an antzezlanak izango dira. Ikuskizun horiek guztiak egubakoitzetan egingo dituzte, 00:00etan.

JUANLU ESCUDERO

Gaur, egubakoitza, Juanlu Escudero aktore zumarragarrak *Trainspotting* antzezlan eskainiko du. Juanlu Escudero ibil-

bide luzea dauka antzerkigintzan. 1982an hasi zen halako lanetan eta, batez ere, gaur egungo autoreen lanak antzeztu ditu (*La gran place, Ertzaina al pilpil, Durango un sueño, Rezagos, Por mis muertos...*). Besteak beste, Geroa, Arriaga, Ados eta beste talde batzuetan lan egin du. Aspaldian, bakarlarri

moduan dabil: *Rie, soy un calavera* eta *Trainspotting* lanak eskaintzen ditu.

Telebistan ere lan egin izan du, honako saioetan: *Goenkale, Entré dos fuegos, Compañeros, Comisario, Hospital central...* Eta zineman ere lan egin izan du -27 horas, *La blanca paloma, La voz de su amo, Visionarios...*

Heroinaren gaineko lana

Orain dela urte batzuk, Juanlu Escudero *Trainspotting* filma ikusi zuen. Film hori izen bereko liburuan oinarrituta dago. Liburua Irvine Welsh eskoziarrak idatzi zuen eta kontakizuna, heroinazaleen bizipenetan oinarrituta, gordin samarra da. Juanlu filmarekin zur eta lur gelditu zen, eta horrekin antzezlan bat egitea erabaki zuen. Komun-ontzi bat, bi jarleku eta bi erretraturen laguntzarekin, lan hori antzeztu hasi zen. Juanluren esanetan, orain dela 20 urte heroinak kutsu erromantikoa zuen, eta Juanluk heroinaren ezkutuko alde hori nabarmendu gura du. Sasoiko lagun asko hil dira eta, antzezlan horren bitartez, haiei guztiei omenaldia egin gura die.

Hainbat elkarte ikuskizun baterako aktore bila dabilta

I.B.

2004ko ekainean Arrasaten ikuskizun erraldoi bat egin gura dute. Hainbat elkarte eta talde musika, antzerkia eta dantza uztartuko dituen ikuskizuna prestatzen dabilta. Aktoreak behar dituzte.

Herriko hainbat elkarte eta talde ikuskizun handi bat prestatzen dabilta. 2004ko ekainean Arrasaten estreinatzeko asmoa dute. Ikuskizun horrek, besteak beste, musika, dantza eta antzerkia uztartuko ditu.

Ikuskizun hori egiteko ideia 2002koa da. Goikobaluko kide batzuek Josemari Velez de Mendizabalengana jo zuten, Arrasateko historiaren gaineko ikuskizunen bat antolatu gura zutelako. Hala, 2002ko abenduan gai horren gainean berba egin zuten, eta herriko talde gehiago inplikatu zituzten. Gero, 2003ko urtarrean ikuskizun horren gidoia idazten hasi ziren. Ardura hori hiru lagunek hartu zuten: Josemari Velez de Mendizabalek, Mikel Irastortzak eta Itziar Rosadok. Azken bi horiek Txatxiaristak antzerki taldeko irakasle eta zuzendari moduan ibilbide luzea egin dute.

IA 100 LAGUNEN IKUSKIZUNA

Sabin Salaberri aramaiarrak ikuskizun horretarako musika idatzi du. Urte askoan Sabin Salaberri Gasteizko Kontserbatorioko zuzendaria izan da, eta orain dela urte batzuk erretiratu egin zen. Arrasate Musikaleko orkestrak musika pieza horiek joko

ditu zuzenean; Goikobalu abesbatzak zuzenean abestuko du; eta herriko hainbat dantzarik ere parte hartuko dute. Horrez gain, 30 bat lagunek aktore lanak egin beharko dituzte. Horietatik lauk protagonismo handia izango dute. Gainontzekoek estra lanak egin beharko dituzte.

KONPROMISOA ESKATZEN DUTE

Mikel Irastortzak eta Itziar Rosadok zuzendu behar dute ikuskizuneko aktoreen lana. Estra lanak egiteko aktoreak behar dituzte. Mikel Irastortzak azpimarratu takoaren arabera, ez du inporta esperientzia izatea. Garrantzitsuena da konpromisoa hartzea. Astero bi ordu eta erdi elkartzeko asmoa dute eta batzar horietan, entseateaz gain, antzerkiaren gainean oinarritzko ikastaroa emango diete. Interesatuak AEDn eman beharko dute izena.

IRAGANEKO SUTEAK GOGORA EKARRI

Ikuskizun horrek oraindik ez du izenik, baina arduradunek bada-kite ordu eta erdi inguru iraungo duela.

Arrasateren gaineko istorio bat kontatuko dute. Josemari Velez de Mendizabalek idatzi du, eta istorioan agertzen diren data eta gertaera guztiak egiazkoak dira. 1447an Arrasaten jazotako sutea gogora ekarriko dute. Oinaztarren eta Ganboatarren arteko liskarrak handiak ziren, eta herria bi zatitan banatuta zegoen. Azkenean, Arrasateri su eman zioten. Ikuskizunaren arduradunen esanetan, egun ere herria bi zatitan banatuta dago, eta iraganarekin konparatu dute.



Itxaropenaren kontzertuak, harrera ona

Joan den zapatuan, Itxaropena abesbatzak kontzertua egin zuen San Frantzisko elizan. Emanaldiak harrera oso ona izan zuen. Bitxikeria moduan, abeslari batek zuzendu behar izan zuen korua, abesbatzako zuzendaria gaixorik zegoelako. Bestalde, azaroaren 22an, Santa Zezilia egunean, Goikobaluko lagunek txikiteoa kantuan egingo dute. /I.B.

E, TXO!

GUREGAIK/ ASTEBURUAN, BI KONTZERTU GAZTETXEAN

**LUDOTEKA IBILTARIA
SAN ANDRES AUZOAN**

Azaroko zapatuetan (8an, 15ean, 22an eta 29an) Txatxilipurdik ludoteka ibiltaria eramango du San Andres auzora. 3 eta 12 urte bitarteko umeek 11:00etatik 13:30era izango dute hitzordua Bedoñabe eraikinean. Jolas egiteko aukera polita izango dute.

**TXIKILANDIA PARKERAKO
BEGIRALE DEIALDIA**

Txatxilipurdi elkarteak Gabonetako Txikilandia parkean begirale izateko izenemate epea zabaldu du. Txikilandia Musakolako kiroldegian antolatuko dute 2004ko urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean. Hala, Txikilandian begirale izan gura duenak Txatxilipurdira jo behar du, eta zera eraman: NAREN fotokopia eta argazki bat. Informazio zabalagoa honako telefonoan: 943 79 54 46.

**BIHAR, 'LARUNBLAI'
EKIMENA EGINO DUTE**

Bihar, zapatua, Txatxilipurdik *Larunblai* ekimena egingo du Herriko Plazan. 11:00etatik 13:30era bitartean, betaurrekoak egiteko tailerra antolatu dute.

**IRUDI FANTASTIKOEN
MARRAZKI LEHIAKETA**

Imajinatu dituzun izaki arraroak marrazteko gauza bazara, Irudi Fantastikoen VIII. Lehiaketara aurkez zaitezke. Sestaoko gaztelekuak antolatu du eta fikziozko edozein gai duten marrazkiak jasoko dira. Lanak DIN A-4 formatuan eta gura den teknika erabilia egin behar dira. Bi kategoria daude: 13 eta 18 urte artekoak eta adin horretatik gorakoak. Abenduaren 31 baino lehen bidali behar dira marrazkiak: Gaztelekuak / La Iberia kalea z/g / 48510 Sestao.

**Metal eta punk-Oi!
doinuak nagusi izango
dira gaztetxean**

IKER BARANDIARAN

Gaur, egubakoitza, eta bihar musika kontzertuak egingo dituzte gaztetxean. Gaur, Jousilouli eta Avalots taldeek joko dute. Bihar, Never Surrender, Ostiada Oi!, Kalekumiak eta Ostiada Zerebralek.

Gazte batzarra gogor hasi da kontzertuak antolatzen. Gaur, egubakoitza, metal doinuak izango dituzte. Pasaia eta Lezo arteko Jousilouli taldeak *Terrorista* izeneko diskoa aurkeztuko du. Talde horrek izen handia hartu du, egiten duen metal berritzailearengatik eta ematen dituen zuzeneko ikusgarriengatik. Euren argazkia ikusi besterik ez da egin behar. Oso gustuko dute polemika

*Herriko punk eta Oi!
musikazaleek oso
gustura hartuko
dute bihar antolatu
duten kontzertua*

ka sortzea. Talde horrekin batera, Kataluniako Avalots taldeak ere joko du.

PUNK ETA OI! DOINUAK

Bihar, zapatua, beste era bateko soinuak nagusituko dira. Arrasateko Never Surrender, Elgetako Ostiada Oi!, Añorgako Kale-



GOR DISKAK

Jousilouli musika taldeko kideek gustuko dute polemika piztea.

kumiak eta Azpeitiko Korrosion Zerebral taldeek punk eta Oi! musika eskainiko dute.

Beraz, ia denon gustuko musika izango da asteburuan gaztetxean!

LOTSABARIK/ Iban Morales

“Musika egiteari uzteak arduratzen nau”

I.B.

Ibanek bateria jotzen du Spank musika taldean. Hori da bere zaletasun handiena. Horrez gain, mutil alaia da eta bere lagunei adarra jotzea oso gustuko du. Lotsati samarra dela aitortu digu.

• Txikitan zer izan gura zenuen?

Mekaniko edo musikari. Irratiak eta bestelakoak desmuntatzea gustuko nuen, eta musika betidanik atsegin dut. Oso txikitatik etxean kaxekin bateria jotzen nuen. Horrela ikasi nuen, eta orain bateria jotzen jarraitzen dut. Musikari profesionala izan

gurako nuke, baina hori ia ezinezkoa da.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Uste dut ilea edukiko dudala eta neskaren batekin bizi izango naizela, baina ez dakit umerik izango dugun. Arrasaten gustura bizi izango nintzateke.

• Zein da, zeure iritziz, adin ideala?

20 urte. Laster adin hori izango dut eta aproposa dirudi. Adin nagusitasuna gaudituta...

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Familiari, musikari eta lagunei. Gero, ikasketei.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Musika egiteari uzteak. Une honetan, Spank taldea abeslari barik gelditu da eta arduratuta gaude. Jarraitu gura dugu.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Gauza askok, batez ere, neska kontuek.

• Zure alde onen bat? Eta alde txarren bat?

Oso alaia naiz, baina batzuetan lagunekin kabroi samarra naiz. Adarra jotzeko ohitura dut.

• Zure gorputzeko atal gustukoena?

Sudurra, betidanik oso gustuko izan dut.

• Jendeari, zeri botatzen dio begirada lehenengo?

Lehenengo, aurpegiari. Gero, oso-osorik begiratzen diot.



ADINA: 19 urte • IKASKETAK: DBH • ZALETASUNAK: Judoa egitea eta bateria jotzea

LIBURU BAT: 'Kutsidazu bidea, Ixabel' • FILM BAT: 'El vengador tóxico' • MUSIKA TALDEA: Dut • KIROL TALDEA: Reala

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiako osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
• Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

BEHEKODENDATIK

Idoia Etxagibel eta Ana Mari Solaegi

EYA ELEKTRAGAILUAK

ENEIDA TURBE

Ana Mari Solaegik 45 urte egin ditu Eya Elektragailuak dendan lanien. Oin illobiekin, Idoiakin, batera daroie negoziue. Dendara sartu eta belaxe igerten da zein dan euren espezialidadie: lanparak. Horrez gain, baiñe, musikie saltzen daue, baitte erosi be, asko gustetan jakue-eta musikie entzutie.

Txikittan ze gure zeuen izen?

Dendari. Beti euki dogu argi, etxien ikusi doguna da-eta. Dendan edo tabernan, baiñe betibe jentiek tratuena egin biher zan lanetan ibilli gare.

Eta, gustora zabitze?

Bai, oso gustora gabitz.

Ibarretxe Plana: ze pentsetan jatzue?

Ondo dauela. Ez dakigu zer gaittik dauen holako polemikie. Proiektu bat da; onarketan bada ondo, eta bestela be bai.

Musika talde bat?

Talde asko gustetan jaku: Benito Lertxundi, Itoitz, Mikel Laboa, Oskorri... Guk musika asko saltzen dogu; baitte entzun be.

Nora juengo zitzake gustora?

Idoia: Afrikara. Eztei-biajien juen nitzen eta asko gustau jaten; Safarixe egingo neuke.

Bizio bat?

Lana.

Etxeko lan gorrotagarrixena?

Ez daukogu arazorik etxeko lanak egitteko. Egin biher dana egin eta kitto!

Juergazaliek zarie? Juergako leku bat?

Ez gara oso juergazaliek. Juegarako leku bat: Mondrague bera; izen be, jente asko eta giro ona egoten da.

Jateko gustoko zerbait?

Angulak, dudu barik.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeinekin?

Ez daukogu holako ametsik. Aldrebes: familixiari ondo egin eta gustura etxien.

Zuen lanerako ezinbestekue dan gauza bat?



“Jente aurrien lan egitteko mosu ona jartiez gain, pazientzia apurtxo bat biher da”

Jente aurrien egitten dogunez lan, mosu ona jartie eta pazientzia apurtxo bat eukittie. Psikologixa apur bat biher da.

Ze irakurriko zeukie gustora ARRASATE PRESSen?

Aparkalekuek eta multiziniiek jarri biher dittuela Mondraguen. Aparkalekuekin arazo haundixe daukogu.

Ze produkto saltzen dozue gehixen?

Lanparak. Beti modelo barrixek ekarten dittugu, eta danetik daukogu: diseiño modernuek, klasi-kuek, sukaldarako, mahaixen jarteko... Musika asuntue be asko saltzen da: diskuek, konpaktuek, bideuek eta DVDiek. Aspaldixen

“Aspaldi honetan euskal musikie asko saltzen da, eta hori guretako oso pozgarrixe da”

euskal musikie asko saltzen da, eta hori pozgarrixe da.

Urteko ze sasoittan saltzen ditzuzue lanpara gehixen?

Edozein sasoittan. Jentiek gela bat aldaketan dauenien, etxie barriketaren dauenien...

Zeuen etxietan lanpara politenak ala... errementarixen etxien zotza burduntzi?

Geure gustokuek dittugu.

Ez die tentagarrixek denda-ko produkto barrixek?

Bai, baiñe...

Teknologia barrixek: biherrezkuek ala kapritxue?

Ordenadoriek, adibidez, biherrezkuek die; ordenadoriei esker lana errexago egitten dogu.

NIREBIDAIAHURA/ Asier Altuna

Argentina / 2003ko abuztuan

Joan den astean Ushuaian utzi genituen Asier eta lagunak. Eskiatzeko aukera izan zuten hantxe, baina ez zuten hori bakarrik egin: “Itsasontzi bat hartu genuen, eta Beagle-ko kanalean ibili ginen. Ikusgarria zen: itsas txakurrak, itsas lehoiak... Eta parajeak ere ikusgarriak ziren”. Ushuaian, Martial glaziarrean eskiatu ahal izan zuten: “Oinez joan ginen glaziarrean gora. Bi ordu behar ziren goraino igotzeko baina gu ordu eta erdi ibili ginen. Goialdean elurraren kalitatea nahiko ona zen, baina apur bat jaitsi ginean elurra ez zegoen egoera batera onean.

Mondragoeko lagunek Ushuaiatik Calafat-erako bidea hartu zuten, eta Perita Moreno glaziarrean joan ziren zuzenez. Glaziar horretan, baina, ez zuten snowa egiteko aukerarik izan; glaziarra ikusi baino ez zuten egin. Handik San Martin de los Andesera joan ziren, baleak ikustera: “Sekula ez dut horrelakorik ikusi: baleak ondo-ondoan ikusi ahal izan genituen. Umeei jaten ematera joaten ei dira paraje hartara, eta hondartzatik hamar edo hamabost metro baina ez zeuden. San Martin de los Andesen lehenengo eguna hondartzan eman zuten. Bigarren egunean, berriz, Baldesko penintsulara joan ziren: “Baldesko penintsulan animalia asko daude: parke natural moduko bat da, eta itsasontzia hartu genuenean, baleak itsasontziaren azpitik pasatzen ziren”.

San Martin de los Andestik Barilochera bueltatu ziren Asier eta lagunak. Batzuek Mondragoerako bidea hartu behar izan zuten, baina beste batzuk, Asier tartean, Barilochen geratu ziren snowa egiten eta azkeneko astea ahalik eta ondoan aprobetxatzen: “Azkeneko astean ez zuen eguraldi onik egin, baina eski estazioan elurra oso egoera onean zegoen”. Hilabete eta erdi kanpoan egon eta gero, motxilak hartu eta etxerako bidea hartu zuten. Gainera, Buenos Aiestik Madrilerako bidean Valeria Mazza eza-gutu zuten. Oporrak amaitzeko modu ezin hobea.

XABIER URZELAI



Glaziarrean eskiatu ahal izatea ez da eguneroko kontua.



Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZAHARREN ETXETIK



GORKA MORRAS

Iturbide egoitzan bizi diren egoiliarren oso portzentaje altuak ezintasun fisikoa du.

Iturbide egoitzan egin beharreko aldaketak aztertzen dabilta

ARRASATE IRRATIA/IKER BARANDIARAN

Udaleko Gizarte Sailak erabaki du Iturbide egoitzan aldaketa sakonak egiteko ordua heldu dela. Gizarte Saileko arduradun Iñigo Garitanok Arrasate Irratiari azaldutakoaren arabera, Udalak arkitekto bat kontratatu du, eta hark lanean dihardu berrikuntza horiek zertan izan behar duten ikusteko.

Iturbide egoitza orain dela hogeitun urte eraiki zuten. Eta, Iñigo Garitanok azaldutakoaren arabera, sasoi hartan egoitza planteatu zen bere kabuz ibil zitezkeen erretiratuek erabil zezaten. Hau da, inolako ezintasun fisikorik ezta psikikorik ez zutenek erabil zezaten. Nagusiendako ostatua, azken baten.

EGOILIARREK, DEPENDENTZIA HANDIA
Hogei urteotan bilakaera handia gertatu da. Bizi-itxaropena asko hazi da; eta horren ondorioz, lagun horien gaixotasunak zelanbait hazi egin dira. Egoiliarretako askok gurpildun aulkiak era-

biltzen dituzte, muletak, bas-toiak... Horrez gainera, alzheimer eta gainerako buruko demenziak hazi egin dira.

Horren guztiorren ondorioz, ezintasun fisikoak eta psikikoak dituzten egoiliar asko dira. Hain zuzen ere, Garitanoren esanetan, Iturbide egoitzan bizi diren

%85ek baino gehiagok zelanbaiteko ezintasunak dituzte. Horrek guztiak Iturbide egoitzan aldaketa eta egokitzapen sakonak egitera behartzen ditu.

Aldaketa eta egokitzapen horien helburu nagusia da egoiliarrei, batez ere ezinduei, ahalik eta oztopo gehien kentzea. Modu berean, egoitzako langileek egoiliarrei zerbitzua behar den bezala emateko, egokitzapen asko egitea pentsatu dute.

Behin arkitektoak azterketa egin eta gero, Gizarte Saileko arduradunekin lankidetzan planteatu bateratua egingo dute. Eta hemendik lau edo bost hilabete barru, arkitektoak proiektu teknikoa idatzita izango du. Eta gero, horren arabera, Iturbideko batzarrak eta Udalak erabakiko dute ikerketa horren aurrean zer egin.

Garitanoren esanetan, hogei urteotan aldaketa eta egokitzapen handiak egin dituzte, baina egokitzapen sakonago baten premia dute. Hala ere, aditza eman du ez dutela orain ezagutzen dugun egoitza guztiz aldatuko.

Zerbitzua hobeto emateko gailuak

Iñigo Garitanok Arrasate Irratiari azaldutakoaren arabera, agerian daudenez gain, ikusten ez diren gabeziak ere egon badaude. Esaterako, egoiliar batzuek logela konpartitzen dute. Biek ezintasun fisikoa badute, zailtasun handiak dituzte, hainbat tresneria behar dutelako. Funtsean, logela horiek ez daude horretarako ondo egokituta.

LABUR

Uribarri elkarteak Garagartzara ibilaldia eta osasunaren gaineko berbaldia antolatu ditu

Uribarri erretiratuen elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu datozen egunotarako. Astélehenean, azaroaren 17an, Garagartzara ibilaldia egingo dute. Hitzordua 16:00etan egin dute.

Azaroaren 20an (eguna), berriz, gaixotasun kardiobaskularraren gaineko berbaldia antolatu dute. Hirugarren Adineko Komunitate Institutuko teknikari batek egingo du berba. 17:00etan.

Abenduaren 21ean, Uribarriko erretiratuek Donostiara txangoa egingo dute

Abenduaren 21ean, Uribarriko erretiratuek Donostiara txangoa egingo dute, hiriburuko Santo Tomasko azoka ikusteko. Dagoeneko zabalik dago izenematea. Abenduaren 10ean zozketa egingo dute, 17:00etan. Interesatuak 20 euro ordaindu beharko dituzte. Bestalde, dagoeneko abian ipini dituzte pintura eskolak. Interesatuak bulegora edo ikastarora jo beharko dute.



Nagusilanen eskutik, kontzertua Iturbiden

Joan den egunean, azaroaren 6an, Nagusilan elkarteak egoitza estreinatu zuen Arrasate pasealekuan. Horrez gain, eta elkarteak duen helburua -edadetuei laguntasuna eskaintzea- aintzat hartuta, egoitza estreinatu baino bi ordu lehenago, Iturbide egoitzan musika kontzertua antolatu zuten.

Egoitzako egoiliarrek gustura hartu zuten ekimena. Izan ere, Jose Mari Soroa musikari donostiarrak kontzertu polita eskaini zuen, eta egoiliarrek kantuan jarri zituen, poz-pozik. Orijinala, benetan, ekimena. Errepikatuzeko modukoa! /I.B.

OSORIK PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebendun hizkiak

ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65



ARRASATE
Iker Heriz
Azaroaren 7an, 3 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Zigor Agirre
Azaroaren 19an, 24 urte.
Zorionak! Lagunen partetik.



ORMAIZTEGI
Goiatz Arana
Azaroaren 9an, 25 urte.
Sobrare, zorionak! Lankideak



ARRASATE
Ane Rodriguez
Azaroaren 3an, 5 urte. Zorionak! Maite, Izaskun, Maria Jesus, Marijo eta etxeakoak.




ARRASATE
Maximino Andres
Azaroaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Unai Viteri
Azaroaren 11n, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak eta Xabier anaia.



ARAMAIO
Eskarne Ugarte
Azaroaren 10ean, 15 urte.
Zorionak! Koadrilako partetik.



ARRASATE
Aimar Mijangos
Azaroaren 13an, 2 urte.
Zorionak! Aita-ama ponteko partetik.



ARRASATE
David Gomez
Azaroaren 16an, 24 urte.
Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE
Julen Diaz de Antoñana
Azaroaren 15ean, 10 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Maria Luisa Martinez
Azaroaren 16an, urtebetetzea. Zorionak! Etxeko partetik.



ARAMAIO
Juan Ramon Ballina
Azaroaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Ander Barrena
Azaroaren 16an, 19 urte.
Zorionak! Familiako partetik.



ARRASATE
Maitane Lasa
Azaroaren 15ean, 12 urte.
Zorionak! Aita, ama eta Marina.




ARRASATE
Lur Puente
Azaroaren 17an, 8 urte.
Zorionak eta musu handi bat! Etxeko partetik.



ARRASATE
Jone Martinez
Azaroaren 14an, 12 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Iñaki Urrutia
Azaroaren 13an, 39 urte.
Zorionak, aitaxo txapelduna! Mariasun, Maider eta Aitor.



ARRASATE
Aitor Odriozola
Azaroaren 12an, 21 urte.
Zorionak! Maite, Itziar eta Lorena.



ARRASATE
Odei Markos
Azaroaren 18an, 7 urte.
Zorionak! Ainara, Garazi eta familiakoak.



ARRASATE
Ibon Gonzalez
Azaroaren 9an, urtebetetzea. Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Elisabeth Gonzalez
Azaroaren 18an, urtebetetzea. Zorionak! Familiako partetik.



ARRASATE
Naia Ruiz de Eguino
Azaroaren 12an, 27 urte.
Zorionak! Koadrilako partetik.



ARRASATE
Goizane Arana
Azaroaren 10ean, 26 urte.
Zorionak! Koadrilako partetik.



ARRASATE
Josu Azkarate
Azaroaren 14an, 7 urte.
Zorionak! Tia Milla, tio Pepe eta Aitor.



ARRASATE
Ritzar Gorosabel
Azaroaren 7an, urtebetetzea. Zorionak! Familiako partetik.



ARRASATE
Jone Soto
Azaroaren 18an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Malen Ruiz de Azua
17an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Ainara Abasolo
Azaroaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak! Errastiko zure lankideak.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:

Arrasate:

ARRASATE PRESS Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitzazu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzeari komeni da.

EZETZASMATU



"ARRASATEKO EMAKUMEAK XX. MENDEAN" LIBURUA

Zein ikastetxe da argazkian ikusten duzuen hori?
Arrastoa: arrasatear ezagun baten izena ipini zioten ikastetxe horri.



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN** ARRASATE PRESSERA!

Luengo lenteja pardinak
Kiloko poltsa

1,35 € 225pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

OIHANA EZKURRArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Oihana!
Galderen erantzun zuzena:
Markulete industrialdean.

ARRASATEKOHISTORIA

Gazteluondo kalearen edo errabalaren gainekoa

'MONDRAGON SUS CALLES', J. LETONA

Santa Barbara mendiaren inguruan Gazteluondo izeneko kalea dago. Izenak argi erakusten du esanahia: gaztelutik gertu dagoena. Olarte, Ferrerias eta Erdiko kaleak elkartzen diren lekuan hasten da, eta Intxaurren ondokirik Arrasate Pasealekuko Ikuste-Eder txaleteraino iristen da. Zergatik ipini zioten kaleari Gazteluondo izena? Bada, antzina, Santa Barbararen goiko aldean gaztelu bat zegoelako. Enrike IV.a erregeak 1457an agindu zuen hura botatzea, herritarren nahiari kasu eginez. Izan ere, gaztelu hartan gaizkileak eta tiranoak ezkutatzen ziren.

Garibaik ezagutu zituen gazteluaren aztarnak. Historia-gilearen arabera gotorleku handia zen, harrizko mendi eder baten zegoen eta oso gaitza zen haraino iristea, baita gerrariendako ere. Gaur egun dauden arrastoei Santa Barbara esaten diegu. Hain zuzen ere, izen hori ez da horren antzinakoa: 1635. urtekoa da. Sasoi hartan, Barbara de Abarrategi Orok Goiko-Obalun ermita bat eraiki

Santa Barbaran zegoen gaztelua gotorleku handia izan zen; 1457an bota zuten

Gazteluondo kalearen goiko aldean Sola jauregia egon zen; 1768an bota zuten

zuen. Santa Barbarari eskaini zion ermita, eta Santa Inesen eta Santa Gertrudisen irudiak zituen. 1945era arte Igokundearen egunean erromeria egiten zuten han, Musika Bandak eta txistulariek lagunduta.

1769an, Tolosako Batzarren dekretuak ermita botatzea agindu zuen, baina herritarrek ez zuten gura eta 1771n, Villafranca de Gaitango kondea



GORKA MORRAS

Olarte, Ferrerias eta Erdiko kaleak elkartzen diren lekuan hasten da eta Ikuste-Eder izeneko txaleteraino iristen da.

alkate zela, bota barik itxi egin zuten. 1794an Konbentzio Frantseseko artillerok eta geroago Napoleonen artillerok okupatu eta profanatu egin zuten; betiko desagertu zen.

Besteak beste, Gazteluondo kalearen goiko aldean, gaur egun Gazteluondo eskola dagoen lekuan, Sola jauregia egon zen. Etxe haren ondoan Aingeru Guardakoaren ermita

egon zen. 1771n itxi zuten. Eta jauregia bota egin zuten 1768an, Gazteluondoko arkua egin zutenean. Edozelan ere, lehena-goko lan batzuen ondorioz, kalte dezente zituen etxeak.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko azaroaren 14a / 85. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Astelehenean Farola Eguna ospatu zuten Andra Marin

UBANE MADERA

Hirugarren urtez, Farola Eguna egin dute San Martin bezperan. Besteak beste, eskolako zenbait ume atera ziren eskolan egindako faroltxoarekin kantuan.

San Martin Eskolako bi irakaslek, Peppek eta Laurenek, ekimen berezia asmatu zuten orain dela hiru urte: Farola Eguna. San Martin bezpera aukeratu zuten egun hori ospatzeko. Eta harrez gero, bereziki, umeek eta haien gurasoek ospatu ohi dute Farola Eguna. Aurten ere hala egin dute, astelehenean. Hala, alde zurretik, San Martin eskolako umeek nork bere faroltxoak egin zuen eskolan. Paperez egindako farola izaten da, makilatxo batek zintzilik ipinita. Eta haren barruan, kandela sartzen dute, antzina egiten zuten moduan.

Eguna iluntzen hasten denean, gura duten guztiek (gehienak umeak eta haien gurasoak izaten dira) Andra Marirako bidea hartzen dute. Han, sasoi honi dagokion moduan, gaztainak jaten dituzte, eta egun horretarako bereziki prestatuta duten kantua abesten dute. Hori egin eta gero, Ibarrara jaisten dira berriro.



ROSA MONDRAGON


Argazkian eskolako umeak ageri dira Farola Eguneako kantua abesten.

BESTETAN BAINO JENDE GEHIAGO

Kontatu digutenez, aurten jende dezente parte hartu du ekimenean. Aurreko bi urtetan baino jende gehiagok. Izan ere, orain arte eskolako maila batzuetako umeek parte hartu izan dute, baina, aurten, maila guztietako ibili dira Farola Egunean. Are gehiago, eskolako txikienetariko askok ere parte hartu dute, euren anai-

arrea nagusiekin. Eta, ume horiei laguntzen guraso mordoa joan ei da. Edozelan ere, eta nahiz eta egun horretako parte-hartzaile gehienak umeak izan, edozeinek parte har dezake.

Hauxe da kantatzen dutena: *nire farolaz noie, nire faroltxoan nirekin. Hotz eitxen badau, etxera noie, nire farol txikiak. Farola, ilargi, eguzki, izarra...*



Giro polita Partxis Lehiaketan

Pozik daude Txirritola Euskara Elkartekoak Partxis Lehiaketak izandako erantzunarekin. Kontatu digutenez, 42 lagunek parte hartu dute, eta oso giro ona izan zuten. Hain ona ezen lehiaketa bukatu ostean, batzuek partxisean jokatzeko segitu zutela. 16:30ean hasi zen lehiaketa eta pare bat orduz egon ziren jolasean. Nagusien mailan Alberto Azurmendik irabazi zuen (bigarren urtez); gazteen mailan, Lorea Oianguren, eta umeen mailan, Ekain Erizek. Zorionak guztiei!

Trikitilari Egunean jende asko elkartu zen plazan

U.M.

Buzkantzak ugari eta ardo beltza barra-barra banatu zuten zapatuan Kalejiran Trikitixa Taldekoek. Arrakasta izan du aurten Trikitilari Eguna, batez ere, eguraldi ona lagun izan dutelako.

Iluntzean hasita kalejira polita egin ahal izan zuten herriko trikitilariak zapatuan, Trikitilari Eguna ospatzeko. Antolatzailetako batek, Gurutze Uribarrenek, kontatu digun moduan, aurten eguraldia lagun izan dute, ez du ezuririk ezta hotzik egin ere; horren ondorioz, Kalejiran tal-

dekoek poliki ospatu ahal izan dute Trikitilari Eguna.

Trikiti eskolakoak kalejiran zebiltzan bitartean, taldeko beste batzuk herriko plazan egon ziren, buzkantzak eta ardo beltza herritarrei banatzen. Jende asko hurreratu zitzaizela esan digute, eta jendea gustura egon zela, giro politean.

Askari goxoaren ostean, sei bildotsen zozketako zenbaki irabazleak atera zituzten. Honako hauek dira: 3.771, 2.902, 3.681, 1.591, 3.183 eta 3.550.

Hortaz, zozketarako txartelen bat izanez gero, ondo begiratu ezazue zenbakia, akaso bildotsen bat tokatu zaizue-eta.



KALEJIRAN TRIKITIXA TALDEA

Kalejiran Trikitixa Taldeko trikitilari mordoa ibili zen zapatuan soinua jotzen.

LABUR

Datorren astean osoko bilkura egingo dute

Martitzenean herriko patroiren eguna izan zen. Eta haren izenean, herritar askok jai hartu zuten, eskolako umeek eta Aramaioko Udaleko langileek barne.

Bestalde, eta Udaleko kontuak aipatuz, datorren eguaztenean, hilak 19, azaroari dagokion ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzarra. Baina, artikulua hau idaztean oraindik landu beharreko gaiak zehaztu barik zeuzkaten Udalean, hortaz ezin izan dugu gai-zerrenda horren berri eman.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxa eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Pestetxea	945 44 50 83
Zuiaiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15*	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:10	20:25

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

PARTIDU BIKAINAK

Pozik geratu dira oraingo astean Bañera elkarteko kideak bi taldeek lortutako emaitzekin; izan ere, nesken taldeak zein mutilek taldeak, biek hala biek garaipen garrantzitsuak ekarri dituzte etxera. Neskek 3-1 irabazi zioten Olabide taldeari eta mutilek 11-1 Canciller Ayala taldeari. Neskei dagokienez, nabarmentzekoa da gazte mailakoan kontra jokatu zutela, eurak baino nagusiagoen kontra. Eta mutilei dagokienez, sartutako gol mordoak ikusi besterik ez dago. Asteburuari begira, bihar jokatuko dituzte partidua. Kasualitatez, bi taldeek Lan eta Jolas izeneko taldea izango dute aurrez aurre. Eta bi partidua 11:00etan izango dira, Izarran. Nesken kasuan, Udal Pilotalekuan jokatuko dute eta mutilek ikastolako kiroldegian. Ea, bada, oraingoan ere emaitza onak ekartzen dituzten herrira.

ZINEMA

Oraingo domekan, *Las Cuatro Plumas* izeneko filma emango dute.



Hamarrekoa Gantzagako jaiei

UBANE MADERA

Gantzagarrak gustura gelditu dira jaiekin. Horrela kontatu digu antolatzaileetako batek. Eta gustura egoteko modukoa izan da, denetarik izan dute-eta 25. urteurrenko ospakizunean. Nabarmentzekoa da, adibidez, Marsel magoak erakarri zuen jende pilo.

Hamarrekoa lortu dute aurten Gantzagako jaiek. Auzotarrek

eskerrak eta guzti eman zizkieten antolatzaileei. Izan ere, eta antolatzaileetako batek kontatu digun moduan, diruarekin ia guztia da posible, eta aurten jai politikak antolatzeko aukera izan dute, bereziki, 25. urteurren ospatzeko.

Barikuko txistularien kontzertuak jende asko erakarri zuen; zapatuan, besteak beste, Mus Txapelketa jokatu zuten; horrek ere jende asko erakarri ohi du eta aurten ere hala izan da, herritarrek ez zuten huts egin. Iban Astola eta

Luxio Elortza izan dira aurtengo irabazleak.

Domekan, goizean txirrindulari lasterketa jokatu zuten. Lau irabazle izan ziren: nagusietan, Martzel Elorriaga; eta auzotarren artean, Aitor Errasti. Eta, txikien mailan, Iñigo Pradera izan zen lehenengoa; auzoko aurrenekoa, berriz, Aitor Azkarraga-Urizar izan zen. Tute Txapelketa ere izan zuten. Gregorio Gallegok eta Valentin Beitiak irabazi zuten.

Horrez gainera, aipatzekoa da auzoko nagusiei egindako omenaldia hunkigarria izan zela, eta Aretxabaletako abesbatzari oparitxo eman ziotela, urtetan dabilta-eta Gantzagako jaietan parte hartzen. Eta, esandako moduan, Marsel magoak jende asko erakarri zuen, nagusiak zein gazteak. Argazki erakusketarekin jendea gustura geratu zen eta eguneko ekitaldiez gain, gauean ere giro onak segitu zuen, ordu txikiak arte.

BOTEPRONTOAN/ Miren Aginagalde Arana · Bordatzailea

“Musuzapi bateko inizialak bordatzeko pare bat ordu ematen nituen makinaz; eskuz, egun osoa”

Askorendako ezaguna egingo zaizue Miren Aginagalde, gure elkarrizketa-laguna; are gehiago, zuetako askok Mirenek egindako lanak izango dituzue gordeta etxean. Izan ere, Miren Aginagalde *Txorokonekoa* izan da urte askoan Aramaion bordatuak egiten zituena. Gaur egun 85 urte ditu; eta oraindik ere egiten ditu halakoak, etxeokendako besterik ez bada ere:

Zer bordatzen zenuen?

Denetik. Adibidez, gerra denboran, hemen Mondragoeko batailoi bat egon zen: Dragoiak. Milizianoendako anagramak bordatzen nituen: *Batallon de Dragones* ipintzen zuen eta dragoi baten marrazkia zerman. Elizoste tabernako Mirenek ematen zizkidan lan haiek. Horrez gainera, ohe-jokoak, mahairako zapiak... Euskal dantzak egiten zituen dantza taldearendako bandera bordatu nuen; aguazilaren txapelarendako herriko armarrira...

Herriko bordatzailea zinen?

Bai, halako zerbait. Ezkontzen ziren bikoteendako apaingailuak ere bordatzen nituen... Nire ogi-beharra zen. Horiak guztiak eskuz egiten nituen; eta gero, lan asko eskuz ezin nuenez egin, Gasteizen makinaz borda-



“Gerran, Arrasateko batailoi bat egon zen: Dragoiak; haiendako anagramak bordatu nituen”

tzen ikasi nuen. Adibidez, umeen eskolarako amantaletan inizialak makinaz egiten nituen. **Nork erakutsi zizun?** Eskolan asko erakutsi ziguten; Geografian horrenbeste erakutsi izan baligute... Gero, poliki-poliki nire kontura hasi nintzen. **Bakarrik egiten zenuen lan?** Bai, neuk bakarrik, etxean. **Zenbat urtean ibili zara?** 68 urterekin-edo utzi nuen, baina ordura arte lanean ibili nintzen. **Oraindik egiten duzu zerbait?** Bai. Baina, askorik ez. Orain, traputxoak-eta egiten ditut. Denbora pasatzeko. **Erakutsi diozu norbaiti bordatzen zure ondorengo izateko?** Loba nagusiak badaki, asko, gainera; eta beste lobak ere zerbait badaki. **Horrenbeste urtean horrenbeste lan egin ostean, baduzu buruan**

bereziki gustatu zitzaizun lanen bat?

Bai. Elizan aldare bat zaintzen nuen. Aste Santuan prozesioan ateratzen genuen irudia, Pietatea. Hark, gurutzetik zintzilik, izara dauka. Harendako oso lan polita egin nuen, dena eskuz eginda. Ordu mordoak eman nituen hura egiten, betiere, nire lanorduetatik kanpo. Akordatzen naiz zelan ordezkatzeko lana egiten zegoen maistra bat nire etxean egon zen apopilo, eta hark esaten zidan: “Ene, ¿cuándo vas a terminar eso?”

Bestela, lan berezien artean, lehen esandakoak daukat buruan: milizianoen txapelak... A! Eta, Aramaioko Pilota Txapelketarako txapeldunen txapelak ere bordatu nituen. Baina, bereziki, dantza taldeari egindako bandera daukat gogoan.

Sekula eraman izan duzu lehia- ketetara zeuk egindako lanik? Behin Pietatearen trapua eraman nuen, eta akordatzen naiz oso lore-ontzi polita erregalatu zidatela, irabazle izatearren. **Jendeak estimatzen du egiten duzuna?**

Ez ezazu pentsa jende guztiak estimatzen duenik, ez. Batzuek bai, baina beste askok ez.

“Lanak eskatzen zizkidan eta egin egiten nituen, baina gero ez nekien zenbat kobratu”

ERRETRATU ZAHARRA

Garagartzatik Kaliforniara artzain



Garagartza aldera egingo dugu oraingo astean argazki zaharraren atalean. Hain zuzen ere, ikusten duzuen argazkia Portalenako ortuan dago aterata. Garagartzako plazan zegoen baserri hura; gaur egun ez da existitzen, eta haren lekuan Goiko-Errota izeneko baserria dago.

Gure berriemailearen ustetan, uda sasoiaren argazkia atera zutenean; ondo begiratzen badiozue, umeen atzeko aldean tomateak eta zerbak daude. Eta umeak garbi-garbi eta dotore-dotore daude, ondo orraztuta, besteak beste; hortaz, domekaren bat edo jai-egunen bat izango zen argazkia atera zutenean.

Argazkiko koadrila Garagartzakoa da. Kontua da eurretan bat, Jesus Maria Herrarte, aspaldi Kaliforniara joan zela, artzain. Edozelan ere, senideak, Garagartza eta Garagartzako lagunak ez ditu ahaztu eta bi urtean behin bisita egiten du jaioterrira; tartean, koadrilakoekin elkartzen da bazkaria egiteko. Hain justu, argaz-

kian agertzen diren guztiak Antonio Azkoaga izan ezik (hilda dago) elkartzen dira Jesus Maria etortzen denean.

Honako hauek agertzen dira argazkian, zutik, ezkerretik eskumara: Pedro Larrinaga, Tomas Herrarte, Juan Maria Uribarren eta Jesus Maria Herrarte. Eta behean dauden biak

Antonio Azkoaga (ezkerrekoa) eta Juan Jose Zuazubiskar dira.

Gaur egun argazkian agertzen diren mutiko horiek 60 urte dituzte; eta argazkia orain dela 50 bat urte ateratakoa da. Hortaz, 50eko hamarkadako da.

Urte mordoia ditu bai argazkiak,


baina oraindik ere Jesus Maria Herrartek bere diru-zorroan eramaten du beti.

Argazkia eta informazioa: Juan Maria Uribarren.
Urtea: 50eko hamarkada


NOLA ALDATU DIRENGAUZAK

Fagor Arrasate, dibisiotan

Arrasate, Kooperatiba baten ibilbidea liburuan azaltzen denez, 1976ra arte Fagor Arrasaten bi dibisio zeuden: lehenengo dibisioak bi lantegi zituen, Arrasaten eta Markinan; bigarren dibisioa, berriz, erremintena zen. 1977an Markinako lantegiak banaketa proposatu zuen, eta lantegi hori hirugarren dibisio izatera pasatu zen. Orduan, Zuzendaritza Kontseilua aldatu zuten.



≈ 1980 Dibisio aldaketa hark aldaketa handiak eragin zituen. Talde teknologia zela-eta, lantegiak berrantolatu egin zituzten.



2003 Administrazio eta Ekoizpen departamentuak berrantolatzeaz gain, Produktua Garatzeko Departamentua sortu zuten.

Gorka
ileapaindegia
peluqueria

Orduetgia:
Asteleneetik-ostiralerara 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

BASATI
TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711762

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

Etxeko konponketak

Elektrizitatea

 **Aranzabal** Koop. E.
Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana 16 behea
(Aretxabaleta)
Tel.: 943 79 17 53

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termi-
ko eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA
Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



Loramendi 7, 2-behea
Tel.: 943 77 08 88

Iturgintza - Bainuak
Gasa - Berogailuak



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxe.: 943 79 11 35



10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Igeltserotza



**Izcue
Irurzun**

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Giltzak



• Sarrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta
aterkien konponketa • Artazi, laban, eta aba-
rren salmenta eta zorrozketak • Larruzko gau-
zak • Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza etxea
Tel./Fax: 943 79 76 03

Eraikuntzak

Berecibar

Santa Marina 34 • Tel.: 943 79 09 63



ZUTARRI S.L.
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel: 943 79 67 78 Faxe: 943 77 10 09



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

CDTI Corsa berria Aitzakia ona beharko duzu gelditzeko



Orain, **50.000 km.**
zure CDTI Corsa berriarekin | erregaia doan.*

Badator Corsa berria, kanpoaldeko diseinu berriarekin eta Diesel Common Rail Turbo Injekziozko 1.3 CDTI 70 ZP eta 1.7 CDTI 100 ZP motor berrien potentziarekin. Eraman ezazu Corsa CDTI berria eta 50.000 kilometrorako erregaia opari egingo dizugu, sekula gera ez zaitezten.

*Eskaintza ez metagarria beste promozio batzuetarako. Hil bukaerara arteko promozioa Penintsulan eta Balear Uharteetan CDTI Corsa 04 urteko modeloan. Promozio berrmatua 50.000 kilometrorako, 4,5etik 4,8rako kontsumo misto eta homologatuarekin eta 0,7 euro l/gasolioko batez besteko kostuarekin. CO₂ emisioa (g/Km) 122tik 130era.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:

San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE

www.giauto.es